



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

HAUR ETA NERABEENTZAKO II. UDAL PLANA (2018-2022), GASTEIZKO UDALA

HANUP

Haur eta
Nerabeentzako
Udal
Plana

PLINA

Plan
Local de
Infancia y
Adolescencia



AURKIBIDEA

1	SARRERA	3
2	AURREKARIAK ETA GAUR EGUNGO EKINTZA ESPARRUA	5
2.1	GASTEIZKO UDALA ETA HAURTZAROA ETA NERABEZAROA	5
2.2	GAUR EGUNGO ARAUDIA ETA ESKUMENAK.....	8
3	DIAGNOSTIKOA: HAURREN ETA NERABEEN EGOERA GASTEIZEN	10
3.1	HIRIAREN EGITURA SOZIODEMOGRAFIKOA.....	10
3.2	FAMILIAK ETA FAMILIA HARREMANAK.....	13
3.3	POBREZIA ETA BIZI BALDINTZAK.....	17
3.4	HEZKUNTZA.....	20
3.5	OSASUNA, BIZIMODUA, AISIA ETA DENBORA LIBREA.....	24
3.6	HIRI INGURUNEA ETA GIZARTE PARTAIDETZA.....	32
3.7	HAUR ZAURGARRIAK ETA BABESGABETASUN ARRISKUAN DIRENTZAKO ZERBITZUA	36
4	HAUR ETA NERABEENTZAKO II. PLANA	39
4.1	JUSTIFIKAZIOA: HAUR ETA NERABEETAN INBERTITZEKO PARADIGMA.....	40
4.2	EGINKIZUN ETA PRINTZIPIO TRANSBERTSALAK.....	41
4.3	II. HANUP-EN IRISMENA, GAUR EGUN HAURREKIN, NERABEEKIN ETA HAIEN FAMILIEKIN LOTURIK DIREN JARDUEREN MULTZOAZ DENAZ BEZAINBAT	43
4.4	NOLA ERATU DEN II. HANUP ETA MUGARRIRIK GARRANTZITSUENAK	44
4.5	LERRO ESTRATEGIKOAK, HELBURU OROKORRAK ETA EKINTZAK.....	48
4.6	EKINTZA PROPOSAMENAK, LERROAREN ETA HELBURU OROKORRAREN ARABERA	50
4.7	JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA.....	71
5	ERANSKINAK	75

1 SARRERA

Gasteizko Udalak prestatu duen Haur eta Nerabeentzako II. Udal Planak (II. HANUP)¹ jarraipena ematen dio Haur eta Nerabeentzako I. Udal Planari (2009-2016), eta haren mandatua da haurren eta nerabeen eskubideak bermatzea, eta, horrekin batera, baita euren ongizatea ere; izan ere, udalak zeregin eta erantzukizun espezifikoak ditu alor horretan.

Komunitatearekiko duen hurbiltasuna dela eta, horko arazoak eta gaitasunak udalaren ardura baitira, eta komunitateari zuzendutako baliabideak eta programak kudeatu eta eskaintzeko funtzioa betetzen baitu, haren eginkizuna da ahaleginak batzea eta optimizatzea haur eta nerabeek behar diren baliabideak izan ditzaten era osasungarrian hazteko bai alderdi fisikoaz, bai emozionalaz eta bai sozialaz denaz bezainbatean.

Planaren helburua da ikuspegi komun bat ezartzea udalean haur eta nerabeekin lan egiten duten departamenduetako jardueretan. Ikuspegi komun hori lortzeko, II. HANUPek tresna erreferente gisa darabiltza hiru esparru: Familia eta Haurtzaroaren aldeko Euskal Ituna, Gasteizerako 2015-2019ko Plan Estrategikoa, eta udaleko Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Sailaren Gizarte Politiken Plan Estrategikoa (2016-2020).

Familia eta Haurtzaroaren aldeko Euskal Itunari dagokionez, haurtzaroaren eta familiaren politikan eskumen zuzena duten erakunde guztiek izenpetu dute Euskal Autonomia Erkidegoan. Erakunde arteko itun horren bitartez, asmoa da erakunde arteko estrategia bat garatzea, euskal gizartean aldaketa demografiko bat bultzatzeko eta gizartea gaztetzeko, nola eta familiak eta haurtzaroa babesteko politiken bitartez. Epe laburrean eta erdian plana gauzatzeko orduan, asmoa da zenbait tresna sortzea zertarako eta planifikazioak egiteko, jarraipen mekanismoak prestatzeko eta legedia garatzeko. Epe laburrera, Itunean haurtzaroaren eta familiaren politikekin eta II. HANUP honekin estuki lotuta dauden elementuen artean, zera dago, EAEko Familien Sostengurako Institutioen arteko IV. Plana, oraindik prestatzekoa, eta, orobat, Haurtzaroaren eta Familiaren behatokia, biak ere Eusko Jaurlaritzako Familia Politika eta Aniztasunaren Zuzendaritzak kudeatuak.

Bigarren erreferentzia esparrua udal mailakoa da; zehazki, Gizarte Politiken Plan Estrategikoa (2015-2019), zeinak hiru erronka handi jarri baitzituen zazpi lerro estrategikotan, bakoitza bere konpromisoekin:

- Bizikidetzaren sendotzea eta bizi kalitatea hobetzea
 - Gizarte-kohezioaren eta giza garapenaren hiria.
- Krisi ekonomikoa gainditzea eta kalitatezko enplegua sortzea
 - Enpleguaren hiria.

Gasteiz eraldatu eta modernizatzea

- Hiri-birgaitzearen eta auzo arteko orekaren hiria.
- Hiri adimenduna eta berdea.
- Hiri gardena eta parte-hartzailea.
- Hiri hezitzailea, kulturala, kreatiboa eta euskalduna.

1 Hemendik aurrera, II. HANUP (Haur eta Nerabeentzako Udal Plana)

- Mugikortasun iraunkor eta osasungarriaren hiria.

Plan estrategiko hori garatzeko, urteko planak eta zenbait urtetarakoak prestatzen dira; horien bitartez lantzen dira udal ekintza estrategikoak. Haurren eta familiaren kolektiboan bizikidetzaren sendotze eta bizi kalitatea hobetzeko erronkari dagokionez, Haur eta Nerabeentzako II. Udal Plan hau eratzeko konpromisoa dator (II. HANUP), baita haur, nerabe eta familientzako programak eta baliabideak bultzatzeko konpromisoa ere.

Hala berean, Plan Estrategikoaren beste erronketako bat zera da, Gasteiz aurkeztea Unicef-ek ematen duen "Haurren adiskide den hiria" ziurtagirira. Ziguiluz hori eskuratzeko, haurren eskubideak diagnostikatu, planifikatu eta ebaluatu behar dira, nola eta Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena kontuan hartuz horri begirako programetan eta politikan, eta haurtzararen eta nerabetasunaren partaidetza sustatuz hirian.

Hirugarren erreferentzia esparrua da Osasun Publikoaren Saileko Gizarte Politiken Plan Estrategikoa (2016-2020). Sail horrek du gizarte zerbitzuen arloa lantzeko eskumena, eta hor sartzen dira, besteren artean, haurrei, nerabeei eta haien familiei begira egiten diren programak eta erabiltzen diren baliabideak. Gizarte Politiken Plan Estrategikoarekin (2016-2020), pertsonak erdigunean jarriko dituzte hiriak, eta, horretarako, lau lerro estrategiko eramango dituzte:

- 1. lerroa: Udal baliabideak egokitzea gizarte zerbitzuen araudira; horrela, bermatuko da herritarrek eskura edukitzea eskubide subjektiboaren zerbitzuak eta laguntzak.
- 2. lerroa: Eredu komunitarioa finkatu eta garatzea, eta, bereziki, prebentzioaren ikuspegia eta arretaren pertsonalizazioa.
- 3. lerroa: Sortzen ari diren premiak detektatzea eta premia- eta ahultasun-egoeren aniztasunari eta konplexutasunari erantzutea.
- 4. lerroa: Udalaren gizarte zerbitzuen egitekoa sendotzea, herritar guztientzako gertuko erreferente gisa.

Tresna horiek bat datoz haurren eta nerabeen arloan dagoen eskumen esparruarekin; jarraian xehekatuko ditugu horren ezaugarriak.

2 AURREKARIAK ETA GAUR EGUNGO EKINTZA ESPARRUA

Gasteizko Udallerriak aspalditik lantzen ditu haurtzarolari, nerabezarolari eta haien familiei begirako udal politikak. Hiriaren aireeratze industrialak hasi zenetik, joan den mendeko bigarren hamarkadan, kezka handia izan da herriko biztanleen hazkundea, oro har, eta haur eta nerabeena, bereziki.

2.1 GASTEIZKO UDALA ETA HAURTZAROA ETA NERABEZAROA

Haurren, nerabeen eta haien familien premiei erantzuteko orduan, nabarmentzekoak dira honako mugarrak hauek:

- 1975ean, Gasteizko Udala esku hartzen hasi zen haurtzaroren eta nerabezaroren arloan. Hala, lehenengo haurtzaindegia sortu eta martxan jarri zen, eta haurrak eta nerabeak hartzeko lehen egoitzak egin zituzten, La Paz egoitzaren alternatiba gisa.
- 1984ko urtarrilean, Haur eta Familientzako lehen udal programa onartu zuten. Helburua zen La Pazko haurtzaindegi erraldoia desinstituzionalizatzea. Aldi berean, babesik gabeko haurrentzako esku hartze esparru berria sortu zen; hala, martxan jarri ziren programa alternatiboak, zertarako eta haurrak eta nerabeak egoitzetan eta familietan hartzeko eta familiei laguntzeko.
- 1985. urtean, lehen gizarte etxe bat ireki zuten, ekipamendu soziokulturalak zituena, kiroldegietatik fisikoki bereizita. Eta 1989an, lehen Gizarte Etxea sortu zen kiroldegia ere egoitza berean zuena; hala, egoitza eredu integratu hori hartu zen handik aurrera.
- 1990. urtean, Gasteizko Udala izan zen tokiko lehen gobernuetako bat, Hiri Hezitzaileen Gutuna idazten lagundu zuena.
- 1991n, Toki Korporazioek Gasteizen antolatu zuten Haurrentzako Jardueren I. Jardunaldia, FEMPEK sustatua². Jardunaldi hartan, Udalak haurretan eta nerabeetan esku hartzeko eredu aurkeztu zuen globaltasunetik begiratuta.
- 1998an, UNICEFekin kolaboratzen hasi zen, zertarako eta Haurren Eskubideen Hitzarmena —Espainiako Estatuak 1990ean berretsia— hedatzen laguntzeko. Hortik sortu zen oraingo haur eta nerabeen partaidetzarako lehen programa, Lagun Gutuna izenekoarekin. Ondoren, sustapen programek hartu zuten indar handiagoa; hain zuzen, Gizarte Etxe integratuen eredu zabaltzearekin. Orotariko programak eta baliabideak eskaini zituzten eta eskaintzen dituzte herritar guztientzat; hor dira hurrei, nerabeei eta haien familiei eskaintzen zaizkien jarduera ugariak, hala nola kirol jarduerak, heziketakoak, aisiakoak eta jarduera kultural eta sozialak.
- Gogoeta saio bat abiatu zen, 2003an "Gasteiz Hiri Hezitzailea" izeneko sail arteko programa sortzeko, eta 2005ean jarri zen martxan.
- 2006an, Gasteizko Haurren eta Familien egoera diagnostikatzeko azterketa bat egin zuten.
- 2009ko apirilaren 24an, Haur eta nerabeentzako I. Udal Plana onartu zuten Udalbatzarrean; izaera integrala zuen, eta 2009-2013 epea hartzen zuten; gero, 2016ra arte luzatu zuten.
- Aho batez onartu zen, 2015eko azaroaren 6ko Udalbatzarrean, SUMANDO-HEMEN talde politikoaren mozioa; mozio hartan, zenbait gai proposatu zituzten korporazioari; besteren artean, "Haurren Adiskide diren Hiriak" izeneko UNICEFen programa.

- Aho batez onartu zuten, 2015eko azaroaren 23ko Udalbatzarrean, Haurren Eskubideen Aldeko Adierazpen Institutuzional bat. Adierazpen horretan, Udalak konpromisoa hartzen du haurrek babesteko politikak sustatzeko, haien eskubideak aitortuta eta bermatuta, eta, era berean, jarraipena eman zioten Gasteiz "Haurren Adiskide den Hiri" gisa aitortua izateko prozesuari. Bestalde, konpromisoa hartu zuen familiei laguntzeko, baliabideak sortu eta bultzatuta eta prebentzio eta sentsibilizazio programak sustatuta, indarra eginez aniztasunean, erantzukidetasunean eta kontziliazioan.
- Aho batez onartu zen 2016ko martxoaren 18ko Udalbatzarrean adierazpen instituzional bat haurren eta nerabeen alde.
- Haur eta Nerabeen Elkargunea sortzea onartu zen 2017ko ekainaren 23ko Udalbatzarrean, Gasteizko haur eta nerabeentzako partaidetza-organo egonkor gisa.
- 2017an, Gasteizko Haur eta Nerabeentzako Diagnostikoa eratu zuten; Gasteizko Haur eta Nerabeentzako II. Udal Plana idazten hasi ziren; eta "Haurren Adiskide den Hiri" ziurtagiria eskuratzeko gainerako baldintzak prestatu zituzten, 2017-2018ko VIII. Deialdira aurkezteko.

Gasteizek Haur eta Nerabeen alorrean egin duen ibilbideak erakusten du nolako konpromisoa izan duen Udalak gure hiriko haurrekin eta nerabeekin.

Ulertuz haurtzaroaren eta familiaren inguruko politikak politika transbertsalak direla eta sektorekako politiken bitartez artikulatzen direla —aintzat harturik osasuna, hezkuntza, etxea, gizarte zerbitzuak, enplegua eta diru sarrerak bermatzeko alorra³ (Fantova 2014)— eta, nahiz eta eskumenaren gaineko erantzukizun garbirik ez dagoen haurtzaroaren inguruko politika transebertsalak garatzeko —zeren eta maiz erantzun zurrunik artikulatzen baitira bai hezkuntzaren alorrean, bai osasunarenean, bai gizarte zerbitzuenean...— erakunde bakoitzari dagozkion eskumenei bakarrik begiratuta erantzuna emateko orduan, egia da udal mailako erakundeak funtsezkotzat jotzen dela esku hartzeko orduan.

Alde horretatik, Gasteizko Udalak erakutsi du, eta erakusten jarraitu nahi du II. HANUPekin, bere eskumenen alorra zuzen betetzea ez dela eragozpen bat zertarako eta haurtzaroko eta nerabearoko politikak aurrera eramateko, kontuan hartzen bada berari dagokiola haurren, nerabeen eta familien alorra. Herritarretatik hurbilena dagoen administrazioa izanik, sentsibilizatu eta lan egin dezake helburu komunak dituzten beste erakunde batzuekin, betiere haurren eta nerabeen onura bilatuz eta familiak babestuz; izan ere, udalerrri maila jotzen da egokiena aipaturiko haurtzaro eta nerabearo politikak eratzeko eta gauzatzeko. Hori guztia lortzeko, konbinatu egin behar dira programa unibertsalak eta espezifikoak, betiere kolektiboen premiak aintzat hartuta eta edo garapen ebolutiboaren arabera bereizita.

Eta hortik abiatuta, hots, Gasteizek Haurtzaroarekin eta Neraberazaroarekin duen konpromisoa honetatik abiatuta hartzen du zentzua Adiskide diren Hirien Ziurtagirira aurkezteko gogoak, sinkronia ezin hobean baitago bere helburuekin:

- Haurtzaroaren alorra lantzen duten Udal Planak eratzeko laguntza ematea,
- Haur guztien parte hartzea sustatzea udalerrriaren bizimodu publikoan,

³ Fantovak dioenez (2014), "politika transbertsalak identifikatzeko eta definitzeko, funtsezko ezaugarria da, hasiera batean, ez izatea sare propioa eta espezifikorik jardueraz, laguntzez, zerbitzuez, administrazioaz, baliabideez eta egoitzez denaz bezainbatean, baizik eta gutxieneko egitura batzuk politikaren gobernantza, kudeaketa eta ebaluazioa gauzatzeko eta sektorekako politiken dispositiboekiko erlazio efektiboa izateko. Politika transbertsalak, berez, sektorekako politiken antolamendu-egiturez eta jarduera-lerroez baliatuta aritzen dira funtsean, haietan bermatuta. Esan nahi baita, sektorekako politikak jarduten direla hartzaileekin, onuradunekin eta erabiltzaileekin. Politika transbertsalek, ordea, tarteko helburuak hartu ohi dituzte, hau da, helburu instrumentalak, zeinak, era berean, beharrezkoak baitira azken helburua erdiesteko, hots, norbanako guztien ongizatea. Horrelako politikek eman liezaioke, gizarte politiken alorra hain konplexua izanik, merezi duten erantzuna. Eta beharrezkoak direla justifikatuta dago, hein batean, ez delako inola ere aski, sektorekako politiken arteko koordinazio gisa, politika bat non, sektorekako erantzukizunak direla eta, ohiko aginte hierarkikoaren mende baitago. Habeetan bermatzen diren zurek laguntzen dute, hortaz, gizarte politiken eraikinari batasuna, itxura, iraunkortasuna eta potentzialtasuna ematen".

- Udallerri barneko sarea sustatzea elkarrekin ari daitezen hemengo komunitateko eragileak eta erakundeak; eta, halaber, udalez gaindikoa, elkarrekin ari daitezen tokian tokiko enteak, eskualdeetakoak eta gizarte zibila;
- Udal politika mota guztiak bultzatzea, haurren eskubideen garapen integralean laguntzeko balio badute.
- Planteamendu unibertsalista bat aplikatzea —haur guztiei begirako ekintzekin eta neurriekin— eta era berean bateragarria izan dadila hurbilketa fokalizatuarekin, lehentasuna emanez prebentziozko ekintzei eta zailtasun sozialean diren haurren multzoari.

2.2 GAUR EGUNGO ARAUDIA ETA ESKUMENAK

Hurtzaroren arloko udal politika horien aurretik araudi eta eskumen jakin batzuk egon dira, eta, zehazki, tokiko administrazioen zeregina izan da arlo hori.

Gaur egun, EAEn, hartzaroaren eta nerabezaroaren arloari dagozkion politikek, udalaren esku hartzeaz denaz bezainbat, honako legedi hau dute⁴:

- 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babestekoa.
- 12/2008 Legea, abenduaren 5koa, gizarte zerbitzuena.
- 13/2008 Legea, abenduaren 12koa, familiei laguntzekoa.

- 26/2015 Legea, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duena
- 8/2015 Lege Organikoa, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duena.
- 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa

Goian zerrendatutako legeetatik lehenbiziko biek esparru nahiko garbi bat hartzen dute euskal udalerriek haur eta gazteen kolektiboarekin eraman beharreko politikez; berdin dio udalerriak zein tamainatakoak diren.

3/2005 Legea dela eta —haurrak eta nerabeak zaindu eta babestekoa—, esan gabe doa haurren eta nerabeen eskubideak hartzen dituela era integral batean. Eta, nahiz eta ez duen zehazten administrazioek nolako eskumenak izan behar dituzten (salbu eta babesgabeziaren arloan), bai aipatzen ditu udalak, honako formula hau erabiliz: "Administrazio publiko eskudunak"; hortaz, udalak ere beste administrazio batzuk bezala inplika daitezke, nola eta baliabideak ipinita, eskubide guztiak bete daitezten. Osasun eta hezkuntza eskubideari dagokionez, legeak argi eta garbi adierazten du eskumena duen sailari dagokiola ("Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko sailari").

Integrazioaren eta babes sozialaren kasuan, legeak argi dio nori dagokion eskumena, Gizarte Zerbitzuei, eta esplizituki esaten du arlo horretako eskumenei bi alderdi hartzen dituztela:

- Gurasoak zaintzea eta haien babesteko baliabideak ipintzea, umeei dituzten betebeharrak betetzeko.
- Guraso funtzioak eta erantzukizunak gauzatzeko laguntzak ematea.

Horrez gain, haur eta nerabeak babestearen arloan, eskumenak desberdintzen ditu legeak, administrazio esku hartzaileen arabera, eta bakoitzaren zereginak zehazten ditu.

Esparru horretan, arrisku kasuak daudenean, udaleko gizarte zerbitzuek beren eskuetan hartu beharko dute kasua, eta ikertu, baloratu eta orientatu egin beharko dute. Hala, arlo komunitariotik jardun beharko da arrisku arina eta babesgabetasun egoera moderatua ikusten den kasuetan. Kasuren batean haurraren babesgabetasun egoera oso larria bada eta bereziki esku hartu behar bada edo are adingabea bere familiarengandik bereizi behar bada, haur eta nerabeak babesteko zerbitzu espezializatura bideratu beharko dute. Udaleko gizarte zerbitzuek uste badute komunitateak esku hartu beharreko kasua dela, arreta plan indibidualizatu bat

⁴ Arau horiekin batera, kontuan hartzekoak dira, orobat, hartzaroari eta nerabezaroari zuzenean dagozkien beste arau batzuk, hala nola abenduaren 22ko 236/2015 Dekretua, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena, urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoa, adingabeen erantzukizun penala arautzen duena, otsailaren 19ko 1/1993 Legea, Euskal Eskola Publikoarena eta ekainaren 30eko 7/2015 Legea, gurasoen banantze edo haustura kasuetako familia harremanei buruzkoa.

eratuko dute, eta detektatu diren premiei erantzuteko egin behar diren esku hartzeak jasoko dira plan horretan.

Gainera, lege horrek zeregin hauek ezartzen dizkie udalei, babesik gabe edo arriskuan dauden haur eta nerabeen arlo espezifikoan:

- Arriskuan diren haurrak eta nerabeak babesteko legeak dakartzan manuak betetzea.
- Behar diren zerbitzuak eta egoitzak jartzea arriskuan diren haurrak eta nerabeak artatzeko, zerbitzu horiek zuzenean nahiz zeharka kudeaturik.
- Aurreko puntuan aipatzen diren zerbitzu eta egoitzak baimentzea, erregistratzea, homologatzea, ikuskatzea eta ebaluatzea.
- Iritzi publikoa sentsibilizatzea, nola eta haur eta nerabeen eskubideak arlo komunitarioan babesteko neurri baikorrak hedatuta eta sustatuta.

12/2008 Legeak udalei ematen die eskumena herritarren premia sozialei erantzuteko; eta hor ulertu behar da sartzan direla haurrak eta nerabeak, eta orobat behar bereziei dagozkienak, babesgabetasun arriskuan edo babes premian diren kasuetan. Alde horretatik, nabarmentzekoak dira informazio, balorazio, diagnostiko eta orientazio Zerbitzua (1.1) herritar guztientzako, Etxeko Laguntza Zerbitzua (1.2) eta, zehazki, gizartean eta hezkuntzan eta arlo psikosozialean esku hartzeko Zerbitzua (1.3), 185/2015 Dekretuan zehaztuta datorrena, babes psiko-hezitzaile eta/edo psikosozial erlazionalak emateko laguntza multzo gisa, izaera indibiduala, familiakoa nahiz taldekakoa duena, etxean bezala landu daitekeena komunitatean, eta besteren artean babesgabetasun arrisku arina edo moderatua duten adingabeei begirakoa. Gizarte zerbitzuen arloan sartzekoa da, hala berean, partaidetza eta gizarteratzea sustatzeko Zerbitzua; hor sartzan dira prebentziorako baliabideak, haurren partaidetzarako programak eta abar

Horrez gain, garrantzitsua da 13/2008 Legea, Familiei Laguntzekoa, oinarrizko nukleo horretan garatzen baitira haurrak eta nerabeak. Landu behar diren zenbait zerbitzu aipatzen ditu lege horrek, esku hartze arlo espezifiko bakoitzean (eskolako esku hartzea, familientzako orientazio eta aholkularitza zerbitzua heziketa arlotik bideratua, eta seme-alaben ongizatea sustatzearekin zuzenean ikustekoa duten beste zerbitzu batzuk, hala nola familia orientazioa eta arreta psikosoziala, familiako esku hartzea eta topaguneak.

2/2016 Legearen kasuan, aipatu beharra dago udalei dagozkiela haur eta nerabeen arretarako eskumen espezifikoak Gizarte Zerbitzuen sistemaren barnean. Era berean, III. kapituluan, zeina udal eskumenez baitihardu, honela dakar Legeak: "Udalerriek, beren eskumen propio, transferitu edo eskuordetuetan sartu ez arren, beste edozein jarduera, zerbitzu edo prestazio garatu ahal izango dute, baldin eta herritarren bizi-kalitatearen hobekuntza dakarren edozein jarduera-eremu antolatu eta kudeatzeko bada eta komunitatearen edonolako behar edo interesei erantzuten badie". Eta jarraian hauxe dakar: "Zerbitzuen antolamendu edo prestazioan bikoiztasunak ekidite aldera, udalerriek ezin izango dituzte zenbait eskumen beren gain hartu edo baliatu; hain zuzen ere, ordenamendu juridikoak, eskumenen esleipen-sistemaren arabera, berariaz beste gobernu-maila batentzat gordetzen dituen jarduera, zerbitzu edo prestazioen gainekoak".

3 DIAGNOSTIKOA: HAURREN ETA NERABEEN EGOERA GASTEIZEN

Kapitulu honetan, "Gasteizko haur eta nerabeen egoerari buruzko ikerketa-diagnostikoa" delakoaren analisia dator laburtuta,⁵ 2017. urteari dagokiona. Informazioa antolatzeko orduan, azterketaren egitura errespetatu dugu, bere zazpi gaikako arloekin:

- Hiriaren egitura soziodemografikoa
- Familiak eta familia harremanak
- Pobrezia eta bizi baldintzak
- Hezkuntza
- Osasuna, bizimodua, aisia eta denbora librea
- Hiri ingurunea eta gizarte partaidetza
- Haur zaurgarriak eta babesgabetasun arriskuan daudenak


3.1 **HIRIAREN EGITURA SOZIODEMOGRAFIKOA**

Hiriak ezaugarri demografiko nabarmenik badu, azken urteetako hazkundera da. Udalerriak, krisia hasi zenetik, aurretik zetorren (2000-2007) hazkunde berari eutsi dio.

3.1.1. Gasteizko biztanleria

2016ko urtarrilaren 1ean, Errolda Jarraituaren Estatistika Ofizialaren datuak hartuta, 244.634 biztanle zituen Gasteizek. Eboluzioari begiratuta, Gasteizek hazkunde berari eutsi dio mende honetan; hau da, 2000tik hona,%12,5 handitu da.

3.1 grafikoa



Hazkunde horrek aldakortasun nahiko konstanteak izan ditu, %0,7 ingurukoak. Eta, nahiz eta igoera apala izan den, epe berean EAEn izan diren datuak hartzen baditugu, hau da, 2000tik 2016ra (%4,3), handiagoa izan da hiriaren igoera, baita erkidegoko gainerako bi hiriburuenak baino ere (Bilbo -%2,6 eta Donostia %3,2).

Gasteizko azken urteetako igoera nondik gertatu den begiratzen hasita, igoera begetatiboa izan da, batetik, hau da, jaiotza kopurua berdintsua izan da baina heriotza kopurua baino handiagoa, eta, bestetik eta batez ere, migrazioak aldeko balantzari eutsi dio. EAetik kanpoko jende asko etorri da Gasteizera 2000. urtetik hona. 2000. urtetik 2015era, hirira 5.000 lagun inguru etorri dira atzerritik eta Espainiatik; dena den, 2007tik hona apaldu egin da bolumena. Epe berean, emigrazio kopurua, hau da, hiria utzi dutenen urteko batezbestekoa 3.000 lagun ingurukoa izan da.

3.1.2. Haurrak eta nerabeak Gasteizen

2016an, 244.634 biztanle baziren Gasteizen, 42.321 lagunek zuten 0 eta 17 urte artean. Herritarren %17,3 dira; orain dela 30 urte inguru, ia %28 ziren. Galera nondik dator, eta pixkanaka gure ingurunekeo gizarteetan bizi itxaropena handitzetik. Haurtzaroak kopuru erlatiboa galdu izanaren beste arrazoi bat zera da, ugalkortasuna jaitsi izana, 60ko hamarkadatik hona datorren joera.

Eustaten arabera, Araban, 1975etik 2011ra, ugalkortasun-indize sintetikoa (emakume batek bere aldi ugalkorrean izango lituzkeen ume kopurua) 2,71 seme-alabatatik 1,42ra igaro da emakumeko. Indize hori 0,93 seme-alabatarara ere jaitsi zen 1996an Araban. Ugalkortasun maila igo egin da azken urteetan, eta, horri esker, igo egin da 0 eta 17 urte arteko biztanleriaren guztizkoa.

3.1.3. Haurren eta nerabeen oinarrizko ezaugarri soziodemografikoak

Adinen osarari dagokionez, 18 urtetik beherakoen bolumena nahiko orekatua dago: 0 eta 5 urte artekoak %36 dira; 6 eta 11 urte artekoak, %34; eta 12 eta 17 urte artekoak, %30, biztanle adingabeen guztizkoa hartzen badugu.

Hala berean nahiko orekatua dago sexuaren aldetik: neskatoak %48,5 dira eta mutikoak %51,5; adin tarte guztietan dago mutikoen kopurua neskena baino gorago.

Jaiolekuari dagokionez, gehienak, %87,3, EAEn jaiok dira (%84,8 Gasteizen). Atzerrian jaiok diren 18 urtez azpiko biztanleak %7,5 dira, eta Espainian jaiok direnak, %5,2. Tasa hori asko aldatzen da biztanleria talde horren adin tarte batetik bestera. 0 eta 5 urte artekoetan, %2,1 bat dira atzerritarrak; 6 eta 11 urte artekoetan, berriz, %6,3; eta 12 eta 17 urte artekoetan, %15,4.

Herritarren banaketa espazialari dagokionez, hiriko auzo berrietan eta biztanle gehien dituztenetan pilatzen dira gazteenak. 2017an, Gasteizko adingabeen erdia baino gehiago (%54) lau auzotan pilatzen dira: Zabalzana (15,8%), Arriaga-Lakua (15,6%), Sansomendi (11,2%) eta Salburua (11,1%). Auzo horietan bizi da herritarren %37.

Esan gabe doa joan den mendean 50eko eta 60ko urteetan eraikitako auzoak, auzo langileak izan direnak, biztanleria jaitsi bazaie ere, asko aldatu direla adinaren osaerari begiratuta. Deigarriak dira Koroatzea eta Zaramaga. 2006tik 2017ra, %13 eta %15 jaitsi zaie, hurrenez hurren, biztanleria. Eta 15 urtetik beherakoetan, aldiz, igo egin da, %24 Koroatzean eta %14 Zaramagan. Horren arrazoiak dira atzeritik jendea bere umeekin etorri dela, eta antzinako auzoetan kokatu dela, kalitatez okerragoak izanagatik eskuragarriagoak baitzaizkie.

3.2 **FAMILIAK ETA FAMILIA HARREMANAK**

Hautzaroaren ikuspegitik, familia da adin horretako norbanakoa biltzen duen lehen taldea, eta haurraren babes nukleo garrantzitsuena. Familia funtsezkoa da haurrentzat, gizarteratzeko, hezteko eta hazteko bide naturala baita.

3.2.1. Familien seme-alaba kopurua eta horren eboluzioa

Erroldako datuek dakartenez, 2016. urtean, 106.553⁶ familia⁷ bizi ziren, guztira, Gasteizen.

3.1 taula

FAMILIAK	2006	2016	Diferentziak 2006 - 2016
Tamaina Kide kop.	Familia kop.	Familia kop.	Igoerak
1	21.492	35.460	%65
2	23.790	31.535	%33
3	19.758	19.488	-%1
4	16.636	15.277	-%8
5	4.009	3.299	-%18
6	1.050	932	-%11
7 edo gehiago	800	562	-%30
18 urtetik beherakoak dituztenak	22.887	26.686	%17
Adinekoak dituztenak	24.989	33.308	%33
Familiak guztira	87.535	106.553	%22

Iturria: Gasteizko Udala. Biztanleen udal errolda

Hamar urteko ikuspegi ebolutiboa hartuta, elementu hauek nabarmentzen dira:

- Igo egin da familia kopurua. 2006tik 2016ra, hiriko familia kopurua %22 igo zen; hala, 87.535 familia zirenak 2006an, 106.553 familia ziren 2016an.
- Haur eta nerabe kopurua igo egin da. 2016. urtean, 26.686 familiatan bizi zen adingabe bat behintzat.
- Adingabeak dituzten familien igoera txikia izan da gainerako familia moten aldean. Igoera konparatiboa (%17) txikiagoa da familien guztizkoa baino (%22koa).

3.2.2. Egitura eta familia aniztasuna

Zatiketa da gaur egun familien eboluzioa ezaugarritzen duen berezitasunetako bat. Bizikidetza moduak oso ugaritu badira ere, ahaidetasuna da oraindik ere etxeko kideak osatzeko funtsezko era.

2015eko Familien eta Familia-Etxeen Inkestaren arabera (FFEI), EAEko biztanle gehienak, gaur egun, %88,1, elkarrekin ahaidetasun harremana duten familietan biltzen dira, hau da, bi lagun edo gehiago senidetuak dituzten familietan, izan ezkontideak, izan anai-arrebak edo bestelakoak.

⁶ Iturria: 2017ko udal errolda

⁷ Familiaren kontzeptua: Bizikidetza unitatea osatzen duten pertsonen multzoa, ahaideak izan gabe ere.

FFEIk ageria uzten du, hala berean, erkidegoko etxe guztiak hartuta, adingabeak dituzten guraso bakarreko etxeak (hau da, 18 urtez beherakoak eta/edo lan okupaziorik ez duten 30etik beherakoak) EAEko etheen %5,7 direla.

Gasteizen hurrei eta nerabeei ausaz egindako inkesta baten arabera, Lehen Hezkuntzako 5. mailakoei eta DBHko 4.ekoei egina —hura izan da II. HANUP hau eratzeko oinarritzko diagnostikoa—, errealitate horren ikuspegi xeheagoa eta, are, aniztunagoa ageri da iturri estatistiko tradizioaletan baino.

3.2 taula

Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasleen eta DBHko 4.ekoen familia egitura	
Familia-bizikidetzaren mota	%
Amarekin eta aitarekin bizi naiz	77,0
Denboraren erdia amarekin eta beste erdia aitarekin	9,0
Amarekin bakarrik bizi naiz	6,1
Amarekin eta haren bikotekidearekin bizi naiz	3,9
Aitarekin bakarrik bizi naiz	1,1
Aitona-amonekin bizi naiz	0,7
Adingabeen zentro batean bizi naiz	0,4
Aitarekin eta haren bikotekidearekin bizi naiz	0,3
Abegi-familiarekin bizi naiz	0,1
Bi amarekin bizi naiz	0,1
Beste egoera bat	1,5

Iturria: Gasteizko haurren eta nerabeen egoeraren inkesta diagnostikoa. 2017

Hartutako erantzunetatik ondorioztatzen da, nahiz eta ikasleen bizikidetzaren formula ugariena seme-alabak dituztenen familia-nukleoarena izan (%77) badirela bestelako bizikidetzaren formula garrantzitsu batzuk: hala nola guraso bakarreko familiak (%7,2), berriz eratu diren familiak (%4,2) eta, batik bat, zenbait azterketatan guraso bakarrekotzat har litezkeenak baina izatez ez direnak, hots, erregimen partekatuan bizi diren haurren kasua (%9). Gutxiengoa dira, berriz —%1etik behera betiere— aitona-amonekin bizi diren haurrena (%0,7), zentroetan bizi diren adingabeena (%0,4) eta abegi-familiatan edo sexu bereko gurasoak dituztenetan bizi direnena (%0,1).

3.2.3. Familia harremanak

Hurtzaroen eta nerabezaren diren familia harremanak zertan diren ikusteko, ausaz egindako inkestan, gurasotasun positiboaren erudian oinarritutako galderak zetozen.

3.3 taula

Familia harremanen balorazioa hurtzaroren eta nerabezaren ikuspegitik

Adostasun maila honako alderdi hauetan...	"Erabat ados"	"Ados"	"Desados"	"Erabat desados"
Familiak ondo tratatzen nau	84,6	13,3	1,5	0,7
Familiak maitasuna ematen dit: maitatua sentitzen naiz	82,5	15,6	1,5	0,4
Familiak laguntzen nau ikasketekin eta gauza berriak ikasteko orduan	68,0	25,1	5,3	1,7
Familiak entzun egiten nau	62,2	30,9	5,4	1,5
Familian ondo antolatuta daude eguneroko jarduerak (otorduak, garbitasuna, lotarako ordua...)	61,0	33,1	4,8	1,1
Familiak nire iritziak aintzat hartzen dituela sumatzen dut	47,0	41,5	8,9	2,5

Iturria: Gasteizko haur eta nerabeen egoerari buruzko inkesta-diagnostikoa, Lehen Hezkuntzako 5. mailako eta DBHko 4. mailako haur eta nerabeei egina. 2017

Haur eta nerabe elkarrizketatu gehienei egokia iruditzen zaie aita-amek nola zaintzen dituzten. Galdekatutako alderdi guztietan %85ek baino gehiagok azaldu du argi eta garbi betetzen dituztela printzipio horiek ("erabat ados" eta "ados" erantzunak batuta).

Sei printzipioetatik, adostasun txikiagoa jaso du esapide honek: "Familiak nire iritziak kontuan hartzen dituela sumatzen dut". "Erabat ados" daude %47, eta "ados" %41,5.

Galdera guztiak aintzat hartuta, haur eta nerabeen %79,6 ados daude proposamen guztiekin ("Erabat ados" edo "ados"), %20,4 ez daude ados sei galderetako batekin.

3.2.4. Seme-alabak dituzten familien arazo eta premia nagusiak

EAEko 2015eko Familien eta Etxeen Inkestan jaso ziren gauzen artean, hor ziren nola eragiten duten zenbait gorabeherak familia motetan; gorabehera horiek eguneroko zazpi arloekin zerikusia dute: etxea, familiaren diru sarrerak, lana, seme-alabak, adinduen zaintza, osasuna eta familiako bizikidetzaren harremanak.

Mendeko seme-alabak dituzten guraso familien kasuan, kezkarik handiena seme-alaben etorkizunarekin dute. Arazo hori, mota horretako hamar etxetatik lautan dago ia (eta kopuru bertsua da guraso bakarreko familien kasuan ere, %37,2). Seme-alaben etorkizunaren ondoren, enpleguaren eta diru sarreraren kezkak datoz: Horrelako familien %20k eta %26k dituzte arazoak arlo horretan, dela etxean dutelako lanik gabe dagoen norbait (%25,9), dela sartzen den dirua ez delako aski ezohiko gastuei aurre egiteko (%22,7) eta dela oporrak hartzeko diru sarrera nahikorik ez dutelako (%20,3). Mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarreko familien kasuan, arazo horiek guztiek eragin handiagoa dute oraindik.

3.4 taula**Mendeko seme-alabak dituzten familietan dauden kezkarik handienak, familia motaren arabera (%) EAE 2015**

	Guraso ez diren ezkontideak	Mendeko seme-alabak dituzten gurasoak	Mendeko seme-alabak dituen guraso bakarra	Guztira
Seme-alaben etorkizunaren kezka	0,0	38,2	37,2	20,1
Etxean lanik gabe dute norbait	25,6	25,9	38,1	19,8
Ez dute ezohiko gastuei aurre egiteko diru sarrera nahikorik	17,1	22,7	52,7	23,9
Ez dute oporrak hartzeko diru sarrera nahikorik	25,1	20,3	43,2	21,6
Enplegu prekarioa (behin-behinekoa, kontraturik gabea, denbora partzialean...)	21,0	16,8	16,0	11,5
Gaizki ordaindutako lana	16,0	15,8	15,8	10,1
Ordu-tegi txarreko lana (txandaka, ordu-tegi irregularrekin)	17,5	13,9	12,0	8,7
Etxean konponketak egiteko beharra	11,5	13,0	17,2	11,5
Familia eta lana uztartzeko zailtasunak	8,9	12,4	7,4	5,6
Seme-alabek bizimodu independentea izateko zailtasunak	0,0	10,9	12,1	6,9

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistika Organo Espezifikoaren Familien eta Etxeen Inkesta, 2015

Hala berean, modu espezifikoagoan aipatu beharra dago kontziliazioaren problematika seme-alabak dituzten eta lan okupazioan direnen kasuan. Lana, familia eta norberaren bizitza bateratzeari buruzko 2015eko inkestatik ondorioztatzen denez, Araban lana dutenen eta 15 urtetik beherako seme-alabak dituztenen hamarretik ia hiruk diote —eta ez da kolektibo txikia, Arabako populazioaren %35 sartzen baita multzo horretan— zailtasun handiak dituztela lana eta seme-alaben zaintza uztartzeko (%28,7). Emaitzek erakusten dute gizonek (%31,4) zailtasun handiagoak dituztela emakumeek baino (%26).

3.5 taula**15 urtetik beherako seme-alabak dituzten eta lanean ari diren biztanleen eboluzioa, lana eta seme-alaben zaintza uztartzeko zailtasun graduaren arabera. Araba 2010-2015**

	Guztira			Gizonak			Emakumeak		
	Baxua	Ertaina	Altua	Baxua	Ertaina	Altua	Baxua	Ertaina	Altua
2010	63,2	13,6	23,2	61,5	14,8	23,7	65,2	12,2	22,6
2011	48,7	29,9	21,3	49,4	28,5	22,1	47,9	31,8	20,3
2012	49,3	26,3	24,4	48,2	26,0	25,9	50,6	26,7	22,7
2013	38,1	35,6	26,3	33,8	35,0	31,2	42,7	36,2	21,1
2015	30,4	40,8	28,7	25,3	43,3	31,4	35,6	38,4	26,0

Iturria: Lana, familia eta norberaren bizitza bateratzeari buruzko inkesta (2016)

3.3 **POBREZIA ETA BIZI BALDINTZAK**

Gure inguruneko pobrezia egoera landu duten azterketa guztietan ondorioztatzen dute gazteen artean gehiago igo dela. Kotsentsu zabala dago, bestalde, pobrezia egoera horiek zinez honda dezaketela haurren oreka, kohesio soziala eta aukera berdintasuna.

3.3.1. Pobrezia egoeraren eboluzioa eta haur pobrezia egoeraren igoera

Pobrezia egoera eta Gizarte-Ezberdintasunen Inkestak bere adierazle guztietan erakusten du EAEko herritarrengan pobrezia pixkanaka handituz joan dela 2008tik 2014ra (eta gorakada nabarmenagoa gertatu da 2012-2014 artean) eta jaitsi egin dela 2016an baina 2008tik 2014ra izan den egoera konpentsatu gabe.

Arabaren kasuan, beste lurraldeetan baino ezaugarri ezkorragoak erakusten dituzte datuek. EAEn 2016an pobrezia egoeraren adierazleak hobetu badira ere, Araban ez da egon hobekuntzarik, eta, hortaz, ezta Gasteizen ere, eta pobrezia gehien jo duen lurraldea bihurtu da krisia hasi zenetik.

Haurrek eta nerabeek gehiago sufritzen dute egoera hori biztanleria osoak baino. Eboluzioa nolakoa izan den begira jarrita, lehenik eta behin ikusten da pobrezia, krisiaren hasieran 18 urtetik beharago dagoeneko dezente handiagoa zena, gehiago igo dela urte hauetan adin talde horren kasuan beste batzuetan baino. (2008an, Arabako adingabeen %8,4 benetako pobrezia egoeran ziren, eta populazio osoaren kasuan, berriz, %41). 2008tik 2016ra, benetako pobrezia tasa ehuneko 6,3 puntu igo da Arabako biztanleriaren guztizkoan; 18 urtetik beharago dagoeneko berriz, ehuneko ia 11 puntu, eta, hala, %19,3raino igo da.

3.6 taula

18. taula. Adingabeek 'pobrezia/benetako ongizatea' eskalan dituzten gabeziak, adin multzoka Araba 2008-2016

Pobrezia egoera eskalak	18 urtetik beharagoak			Herritarrak, guztira		
	2008	2016	Diferentzia 2008-2016	2008	2016	Diferentzia 2008-2016
Benetako pobrezia	8,4	19,3	+10,9	4,1	10,4	+6,3
Ongizate gabeziaren beste era bat	2,3	2,3	0,0	2,4	3,8	+1,4
Ongizate gabezia	10,7	21,6	+10,9	6,5	14,2	+7,7
Ongizatea eta arrisku egoerak	22,7	12,4	-10,3	18,6	13,1	-5,5
Ia erabateko ongizatea	40,6	39,6	-1,0	38,0	35,3	-2,7
Erabateko ongizatea	26,0	26,4	+0,4	36,8	37,4	+0,6
Guztira	100,0	100,0	—	100,0	100,0	

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistika Organo Espezifikoaren Pobrezia egoeraren eta Gizarte-Ezberdintasunen Inkesta

Esan beharra dago sektorerik zaugarrienei eragin diela gehienbat pobrezia egoeraren prozesuak. Ongizate osoa edo ia osoa duten adingabeen proportzioa ez da aldatu. 2008tik 2016ra, berdina dago ezerekin gabeziarik ez duten adingabeen proportzioa (%66). Epe horretan, jaitsi egin da ongizatea arriskuan duten haur eta nerabeen multzoa; 2008an, %22,7 zen multzo horretako adingabe kopurua, eta gaur egun %12,4 da. Gainerako egoera okertu egin da: ongizaterik ez zuten benetako pobrezian sartu dira. Itxura guztien arabera, handitu egin da polarizazioa, eta horrek desoreka areagotzen du haurren kolektiboan.

3.3.2. Pobrezia egoeraren eta gabeziaren eragina haur eta nerabeetan

Benetako pobrezia egoeraren hedapenari buruzko datuak ematearekin batean, esan beharra dago emaitzak larritzekoak direla eta haurren kasuan desorekak oso ondorio larriak dakartzala.

Desorekek ekartzen dituzten gabeziei itxura bat hartzeko, hemen dakartzagu 16 urtetik beherakoek izaten dituzten gabeziak pobrezia mailaren arabera.

2016ko PGEIk lehenengoz sartu du modulu bat, adingabeen gabezia espezifikoak kontuan hartzen dituena. Helburua da neurtzea herritarrengan detektatzen diren gabezia orokorrekin noraino eragiten duten gazteengan.

3.8 taula

16 urtetik beherakoek pobrezia/benetako ongizatea eskalan dituzten gabeziak, arazoka sailkatuta. EAE 2016					
	Benetako pobrezia	Benetako ongizate-gabeziaren beste era bat	Ongizate-eta arrisku-elementuak	Ongizatea	Guztira
Egunero proteinak jaterik ez	17,4	3,3	2,8	0,0	2,3
Ez ditu bi zapata pare (edo pare bat urte-sasoi bakoitzeko)	12,8	0,0	0,0	0,4	1,6
Fruta edo barazkirik gabe egunero	10,7	1,9	0,0	0,4	1,5
Ezin ditu egun bereziak ospatu	38,2	13,9	4,0	0,5	5,6
Ez du arropa berririk (ez bada bigarren eskukorik)	40,1	19,9	0,3	0,4	5,5
Ez du aisialdirako ekipamendurik (bizikleta, patinak...)	25,3	9,2	5,0	0,0	3,7
Ez du bere adinerako libururik (ez bada eskolako)	19,3	8,1	3,1	0,0	2,8
Ez du eskolako lanak egiteko leku egokirik etxean	12,4	7,6	0,4	0,5	2,1
Ez du aisialdiko ekipamendurik (etxean)	12,9	2,4	3,3	0,0	1,9
Ezin du oporretara joan (astebete urtean)	82,4	58,2	28,3	2,6	17,1
Ez du (ordainpeko) jarduera erregularrik egiten etxetik kanpo	55,3	18,7	9,4	0,7	8,4
Ezin ditu lagunak jolastera edo jatera gonbidatu	50,7	25,6	13,4	1,6	9,5
Ez du (ordainpeko) bidaia edo jarduerarik egiten eskolan	48,3	14,2	16,8	1,7	9,1

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistika Organo Espezifikoa Pobreziaren eta Gizarte-Ezberdintasunen Inkesta.

Adingabeek pobreziaren/ongizatearen eskalan dituzten desberdintasunetatik desoreka garrantzitsuak datoz bai oinarrizko premien estalduran eta bai bestelako beharretan, hala nola hezkuntzan eta aisialdian, eta hori galera handia da haurren aukera berdintasunaz denaz bezainbatean.

3.3.3. Seme-alaba adingabeak dituzten eta DBE/GLL sistemaren eta Udalerriko Laguntza Ekonomikoen onuradunak diren familien eboluzioa

Gasteizen benetako pobrezia haur eta nerabeetan igo dela erakusten du honako honek ere: azken urteetan nolako eboluzioa izan duen adingabeak dituzten eta DBE/GLL sistemaren onuradunak diren familien kopuruak.

EAEko beste hiriburuekin alderatzen badugu, nabarmentzekoa da, lehenik eta behin, nola igo diren hiru urte honetan DBEren hartzailak adingabeak dituzten familietan, non, oso handia ez bada ere (%4,6 Gasteizen), ez baitu bat egiten Bilbon eta Donostian izan den jaitsierarekin edo egonkortasunarekin

3.9 taula

Diru sarrerak bermatzeko errenta hartzen dutenak eta etxean adingabeak dituztenak. Askotariko lurraldeak. 2014-2016								
	2014		2015		2016		Eboluzioa 2014-2016	
	Umeak dituztenak	Guztira	Umeak dituztenak	Guztira	Umeak dituztenak	Guztira	Umeak dituztenak	Guztira
Gasteiz	2.580	7.331	2.593	7.431	2.698	7.704	%4,6	%5,1
Bilbo	4.399	11.956	4.367	11.621	4.298	11.302	-%2,3	-%5,5
Donostia	983	2.439	938	2.299	989	2.397	%0,6	-%1,7
EAE	19.335	53.187	19.237	52.096	18.980	51.234	-%1,8	-%3,7

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistika Organo Espezifikoa Pobreziaren eta Gizarte-Ezberdintasunen Inkestak

Gasteizko Udalerriak Gizarte Zerbitzuen bidez ematen dituen laguntzetan, are eta igoera handiagoa gertatu da seme-alabak dituzten bizikidetza unitateetan. 2012 eta 2015 artean, %88 igo zen familia tipologia horri Gizarte Larrialdietarako ematen zaizkion Laguntzak: 2012an 887 familia zirenak 1.666 dira 2015ean.

Epe berean (2012-2015), seme-alabak dituzten etxeetan eman diren udal laguntzak ia laukoiztu egin dira, 115 zirenak 421 baitira 2015ean. Baliabide ekonomikorik ez duten pertsonen ematen zaizkie laguntzok, eta ezin izaten dute bestelako babes sistemarik eskuratu.

3.4 HEZKUNTZA

Hezkuntzaren arloan dauden arazo eta/edo behar nagusiak identifikatzeko helburuz, atal honetan hurbilketa kuantitatibo bat dator, dauden iturri estatistikoak eta dokumentalak erabilia. Analisia osatzeko, azterketa honetan parte hartu duten eragileek emandako informazio gehigarria dator.

3.4.1. Eskolako matrikulazioaren ezaugarriak Gasteizen

Joan deneko hamar urtean, asko igo da urtez urte Haur Hezkuntzan eta Lehen eta Bigarren Hezkuntzan izena eman duten ikasleen kopurua. 2006-2007ko ikasturtean 33.039 ikasle zirenak, 41.306 dira 2015-2016koan; hortaz, %25 igo da, eta bat dator hirian azken urteetan izan den adingabeen multzoaren igoerarekin.

3.10 taula

Eskolako matrikulazioa Gasteizen				
		2006/2007	2015/2016	
Sarea	Publikoa	16.150	21.605	+%34
	Pribatua	16.889	19.701	+%17
Hizkuntz ereduak	A	11.873	8.435	-%29
	B	11.404	14.092	+%24
	D	9.762	18.779	+%92
Maila	Haurreskola	8.678	11.290	+%30
	LH	11.161	14.328	+%28
	DBH	7.752	9.162	+%18
	DBHO	5.448	6.526	+%20
Guztira		33.039	41.306	+%25

Iturria: Eustat. Eskola-jardueraren estatistika

2015-2016ko ikasturteko datuen arabera, ikasle kopurua nahiko modu orekatuan dago banatuta sare publikoan (%52,3) eta pribatuan (%47,7). Ikastetxe publikoetako matrikulazioa zertxobait handiagoa da EAeko baina (%50,7).

Nabarmentzekoa da nola igo den atzerritar ikasleen kopurua Gasteizen. 2006-2007ko ikasturtetik 2015-2016kora ia bikoiztu egin da; 2.369 zirenak 4.724 ikasle dira 2015-2016koan. Ezaugarri nabaria da eremu horretako ikasle gehienak sare publikoan daudela. 2015-2016ko ikasturteko datuei begiratzen bazaie, atzerrian jaio diren ikasleen %83,1 ikastetxe publikoetan daude izena emanda, eta hori EAeko kopurua baino askoz gorago dago (%69,3). Hori dela eta, horrelako ikasleen ordezkariak dagokiona baino handiagoa da ikastetxe publikoetan, matrikulazio guztiaren %18,2 baitira, eta sare pribatuan, berriz, %4 besterik ez.

3.4.2. Hezkuntzaren adierazle garrantzitsu batzuk Gasteizen

Gasteizko adingabeen hezkuntzarekin zerikusia duten zenbait adierazle bildu dira; esaterako, eskolatzea, derrigorrezko lehen eta bigarren hezkuntzaren mailak amaitzean dagoen egokitasuna eta eskola uztea:

Haur Hezkuntza: (2014-2015ko ikasturteko datuak) Gasteizen, haurren %15,1 eskolatzen dituzte urtea bete aurretik, %46,6 urtebeteko adinean eta %88,6 bi eta hiru urtekoetan. Ikuspegi konparatua hartzen badugu, bi urteko neska-mutikoen eskolatze tasa Gasteizen (%88,6) EAEkoa baino pixka bat apalagoa da (%93,1)

Derrigorrezko hezkuntza gainditzen dutenak. Dagokion adinean derrigorrezko hezkuntza gainditzen dutenen kopurua ontzat jo daiteke. Datuen arabera, 12 urtetan, ikasleen %85,7 egoten da DBHn matrikulatuta, eta, hortaz, Lehen Hezkuntza osatua dute. EAEn, %87,4koa da tasa hori, eta Estatuan %84,3koa.

Eskolatze tasa orokorra: 16 urtetan, eskolatze tasa orokorra %100koa da hirian (EAEn eta Estatuan, berriz, %98,3koa eta %94,8koa, hurrenez hurren). 16 urteko biztanleria osotik, %75,2 sartu dira dagoeneko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoa, dela Batxilergoa eginez (%62,5), dela LH eginez (%3,4) edo dela HLKP⁸ eginez (%0,6).

Eskola uztea. Ez dugu Gasteizen eskola uzten dutenen daturik eskuratu. Eustatek EAE osoko datuak ematen ditu, eta datu horiek adierazten dute erkidegoetan liderra dela eskola uztearen tasarik apalena duen aldetik (%7); estatuko batez bestekoa, berriz, %18,3 da. Eskola goiz uzten dutenen tasa jaisten ari da pixkanaka 2008tik; hain justu, urte horretan %13,9raino igo zen, eta 2014an %7,2ra jaitsi. Mutiletan tasa zertxobait handiagoa bada ere (%7,7; neskena, berriz, %6,6) aldeak leuntzen joan dira azken urteetan, mutiletan gehiago nabaritu baita eskola uzten dutenen kopurua apaltzearena.

Diagnostiko Ebaluazioen emaitzak⁹: EAEko emaitzak Gasteizkoekin konparatzean, neurketak ez dira asko aldatzen. Lehen Hezkuntzan, EAEko emaitzak Gasteizkoen bertsuak dira, eta zertxobait goragoak DBHn. Alabaina, diferentzia handiak daude hirian, gizarte kolektibo batetik bestera. DEetan desoreka handiagoa erakutsi duten aldaeren artean honako hauek daude: ikastetxeko hizkuntz eredu, ikaslea errepikatzailea izatea edo ez izatea, ikaslearen jatorria eta ama hizkuntza. Bai Lehen Hezkuntzako eta bai Bigarren Hezkuntzako ikasleriari dagokionez, sare publikoaren A eredutik datozen ikasleak, errepikatzaileak eta etorkinak daude ikasle guztien batez besteko balioetatik oso apal. Bestalde, ama hizkuntza euskara dutenek eta D eredu hitzartuan ari direnek emaitza askoz hobekak dituzte. Lehen Hezkuntzaren kasuan, adibidez, 40 punturen diferentzia ere badago, ikaslearen jatorriaz eta errepikatzailearen aldagaiaz denaz bezainbat, eta 15 punturena A eta D hizkuntz ereduaz eta ama hizkuntzarenaz denaz bezainbat.

⁸ HLKP: Hasierako lan-kualifikazio programa.

⁹ Ebaluazio prozesu bat dira etapa erdiko Diagnostiko Ebaluazioak, eta ISEI-IVEIk egiten ditu ikasleen oinarriko gaitasunen garapen maila baloratzeko; horretarako, Lehen Hezkuntzako 4. mailakoak eta DBHko bigarren mailakoak ebaluatzen ditu, eta helburua da ikastetxeak eta hezkuntza sistema hobetzen laguntzea.

3.4.3. Kontsultatu diren eragileen iritzia galdetuta detektatu diren arazo eta behar nagusiak.

Jarraian datorren informazioak erreferentzia egiten die hezkuntzaren arloko zenbait alderdiri; hain zuzen aztertu da non diren hirian haur eta nerabeen ahultasunik eta arriskurik handienak, nola eta iritzia galdetuta zenbait eragileri.

Lehen haurtzarokoan hezkuntza premiak

Gasteizko Udalak ibilbide oparoa du hezkuntza eta eskolatzeko goiztiarrean. Haur Hezkuntzako lehen zikloaren eskolatzeko tasak hamabost urte honetan nabarmen igo badira ere, herritarrei galdetuta, uste dute 0 eta 3 urte bitarteko haurrentzat dagoen eskaintza ez dela nahikoa. Diotenez, sozioekonomikoki gutxien duten hiriko sektoreek zailtasun handiagoak dituzte zerbitzu horiek eskuratzeko orduan (tasak beren gain hartzeko arazoak dituztela eta).

Eskola segregazioa, desberdintasun sozioekonomikoetan eta jatorrian oinarrituta

Motibo sozioekonomikoak eta jatorria direla eta, eskola segregazioa arazo gisa aipatzen dute diagnostiko hau egiteko orduan galdekatuak izan diren eragileek. Arazo hori identifikatuta eta landuta du Udalak lehendik ere, erakundeen eta eragile inplikatuaren arteko topaketa eta elkarlan espazio bat sortuta —"Hezkuntza eta Aniztasuna" izeneko lan-mahaia¹⁰—. Gaur egun, zenbait proposamen eginak daude horren harira (nahiz eta 2017an oraindik ez diren aplikatuak izan), zertarako eta ikasleen banaketa orekatsua bat lortzeko Gasteizko ikastetxeetan, publiko zein pribatu.

2016aren amaieran "Hezkuntza eta Aniztasuna" lan mahaiak egindako dokumentuan ikus daitekeenez, Gasteizen arazo larria da arrazoi sozioekonomikoengatik dagoen eskola segregazioa, askotan immigrazioaren fenomenoari lotua datorrena.

Hezkuntza premia bereziak dituztenentzako zerbitzua

Laguntza premia espezifikoak dituzten ikasleen kontzeptua kontzeptu zabala da, eta hor sartzen dira desgaitasunak eta/edo jarrera nahasmendu larriak dituztenak bezala berdin ikasteko zailtasunak dituztenak eta gaitasun intelektual handikoak ere, orobat hezkuntza sisteman berandu sartu direnak, baldintza pertsonalengatik edo eskola historiarengatik premia espezifikoak dituztenak eta gizarte desoreka jasaten duten ikasleak.

2014-2015eko ikasturtean, 3.169 ikasle zeuden guztira Araban, heziketan laguntza espezifikoak behar zutenak —aurreko ikasturtean matrikulatutakoak baino %17,5 ikasle gehiago—; horietatik %64,5 ikastetxe publikoetan ari zen. Horietatik guztietatik %40 inguru, 1.000 ikasle pasatxo, heziketa berezia behar zuten, non desgaitasunik ohikoenak baitziren garapenaren nahasmendu orokorra, mugitzeko desgaitasuna, entzumenarena eta jarrera nahasmendu larriak.

Hezkuntza berezia behar dutenen zerbitzu espezifikoari dagokionez, analisisian datozen ekarpenetan, zeinak kolektibo horrekin diharduten elkarteek egin baitituzte, zera aipatzen da, "lan integratzaile bat egiten ari direla baina ez inklusiboa". Alde horretatik, garrantzia ematen zaio ikuspegia aldatzeari, eta esaten dute eskolaren alde egitea funtsezkoa dela behar bereziak dituztenak gizarteratzeko.

Beste arazo batzuk

Azterketa diagnostikoaren tamaina eta irismena ikusita, ez da analizatzerik izan haurren eta nerabeen heziketan eragiten duten problematika guztiak —ugariak eta askotarikoak—. Detektatu diren arazo nagusiez gain, hortaz, beste batzuk gaineratu ahal zaizkio, dela eskola

¹⁰ Gasteizen eskola segregazioari aurre egiteko analisiaren eta proposamenen dokumentua. "Hezkuntza eta Aniztasuna" lan-mahaia. Gasteiz, 2016ko abenduaren 19an.

bizikidetzan, dela berdinen arteko indarkeria egoerak eta dela genero desorekak, zeinak udal ekimen batean baino gehiagotan jasotzen baitira, baita plan honen ekintza proposamen zenbaitetan ere.

Esan gabe doa kontsultatu diren gurasoek nahiz elkarrekin nabarmendu duten beste kontu bat, esku hartu beharra dagoela jolas garaian eta/edo espazio komunean gertatzen diren interakzioetan, zergatik eta zenbait haur eta nerabek bazterketa sufritzeko arrisku handiagoa dutelako berdinen artean. Hezkuntzaren arloan espazioen erabilera bereziaren arazoa eta orobat ikasleen artean gertatzen diren gizarte interakzioak ere —zeinak genero rolerak eta izaera sexistak markatuak egoen baitira, bereziki bigarren hezkuntzan— orain dela gutxi identifikatuak izan dira, hiriko ikastetxeetako hezkidetzaz egin duten azterketa batean, Gasteizko Udaleko Hezkuntza Zerbitzuak argitaratua¹¹.

Txosten horretatik ondorioztatzen denez, arlo horretan gertatu ahal diren diskriminazio egoerak eta portaera sexistak saihesteko neurri sorta zabal bat behar litzateke, hasi irakasleen prestakuntzatik eta nerabeentzako tailerretara, baita ikastetxeetan erabiltzen diren testuliburuak eta material didaktikoaren berrikuspen kritiko bat ere.

11

Gasteizko Udala. Hezkidetzan egoerari buruzko diagnosi azterlana Gasteizko Ikastetxeetan (0 eta 18 urte)

3.5 OSASUNA, BIZIMODUA, AISIA ETA DENBORA LIBREA

Epigrafe honetan, hiru alderdi funtsezko datoz, haurren eta nerabeen egoera analizatzeko orduan: Osasun egoera, bizimodua, eta aisiarekin eta denbora librearekin zerikusia duten kontuak.

3.5.1. Osasun egoera

Atal honetan, osasuna nola sumatzen duten lantzen da, bai eta ezinegon psikosomatikoarekin zerikusia duten alderdiak.

Kontsultatu diren haurren erantzunetatik, lehen ondorioa da gasteiztar ikasleek osasunaren oso ikuspegi baikorra dutela. Kontsultatu diren haur eta nerabe gehien-gehienek uste dute beren osasuna bikaina (%51,2) edo ona (%43) dela. %6 inguru dago hala holakoa edo txarra sumatzen duena.

Mutikoen osasun bikaina sumatzen dute (%59,3), neskek baino asko gehiago (%43,7); eta hala holako osasuna edo osasun txarra neskek (%7,1) sumatzen dute gehixeago mutikoen baino (%4,3). Bestalde, adin taldeka, ikusten da beren osasuna bikaina dela uste dutenak gazteagoak direla (%56,8), 14 eta 17 urte bitartekoak baino (%42,2). Diferentzia inportantea dago jatorriari dagokionez: adingabe autoktonoen %53,5ek bikaintzat dute beren osasuna, eta atzerritarretan soilik %42,3koa da ehunekoa.

Osasuna sumatzearekin batera, ondoez psikosomatikoarekin zerikusia duten datuak bildu ziren. Honako koadro honetan dator emaitza.

3.11 taula
Osasunari buruzko baieztapenekin dagoen adostasuna

	Urduri sentitu ohi naiz	Lo egitea kostatzen zait	Nekatua sumatzen dut neure burua	Minak izaten ditut maiz	Goibel egoten naiz maiz
Neskek	45,5	36,6	32,6	31,3	19,3
Mutilak	36,6	29	22,9	20,9	12,5
11-13 urte	38,4	34	23,5	24,1	14,6
14-17 urte	45,9	31,3	35,1	29,9	18,4
Autoktonoa	41,4	32,2	26	24,5	14,4
Atzerritarra	41,1	37,6	36,9	30,9	22,5
Osasun Bikaina	36	26,4	19,2	17,6	10
Osasun ona	44,4	37,2	32,3	33,2	18,2
Osasun txarra edo hala holakoa	64,4	59,3	72,9	52,5	52,5
Guztira	41,2	33	27,9	26,3	16

Iturria: Gasteizko Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 4. mailakoen iritzi azterketa.

Gehienek beren osasunaren gaineko ikuspegi baikorra badute ere, badira zenbait gorabehera edo ondoez ikuspegi hori dezente jaisten dutenak. Emaitzetan dator galdekatu diren haur eta nerabeen %41,2 urduri sentitu ohi direla; %33k lokartzea kostatzen zaiela; %27,9 nekatua sentitu ohi dela; %26,3 minak sumatzen dituela maiz; eta %16 oro har goibel egoten dela. Bost egoera horiek batzen badira, kontu horietako bat aipatzen duten adingabeen %67,4 dagoela ateratzen da, eta horietako hiru aipatzen dituztenak %21 dira.

Osasunaren beste adierazle batzuk

Hona hemen adingabeen osasunaren gaineko beste adierazle eta datu batzuk, iturri askotarikoetatik ateratakoak.

- *Ez dago aldaketarik hilkortasunaren adierazle nagusietan bizitzaren hasieran: urtebeteko adingabeen hilkortasun tasa Araban 2015ean 1,6koa da milatik; horrek EAEko tasaren azpitik dagoela erakusten du (2,7 milatik).*
- *Nahiko egonkor daude erditzeen gaineko ezaugarriak: Ez dago aldaketa handirik joan deneko hamar urtean, ez Araban jaiotako haurren heldutasunaren arloan, ez batez besteko pisuarenean eta ez erditze anizkoitzen prebalentziarenean.*
- *Igoz doa haurren eta gazteen osasun mentaleenganako arreta: Haur Psikiatriako Unitatean artatzen dituzten pazienteen kopurua igo egin delako datua dago. 2010 eta 2016 artean, 1.394tik 1.593ra igo da Arabako Psikiatria Unitatean artatu dituzten pazienteen kopurua, hau da, %14.*
- *Bere buruaz beste egiten duten adingabeen tasa Bizkaian eta Gipuzkoan baino beherago dago. 2006-2015 artean, EAEn, 25 suizidio egon ziren, 19 urteko edo hortik beheragoko pertsonenak. Horietatik hiru Araban gertatu ziren, eta bi 2015ean. 20 urtetik beherako suizidioak batzen baditugu, 2006 eta 2015 artean, Arabako tasa (0,05 pertsona 10.000 pertsonako) beherago dago Bizkaikoa (0,06) eta Gipuzkoakoa (0,08) baino.*
- *Egonkortasuna GOFeren Laguntza Goiztiarraren zerbitzuak hartutako adingabeen kopuruan. 2015ean, 0 eta 6 urte arteko haurren kopurua, heldutasun atzerapena edo atzerapen arriskua dutenen eta Zerbitzuak harturikoen kopurua 209ra igo zen. Horietatik 181 Laguntza Goiztiarraren Zentroak hartu zituen (estimulazio globala eta fisioterapia) eta 53 Logopedia Zentroak. Horietatik 187 (%89) Gasteizen bizi ziren. 2011tik Gasteizen bizi diren haurretatik Zerbitzu horrek hartu duen haurren kopurua nahiko egonkor dago, 157 (2012. urtean) eta 187 artean (2015. urtean).*
- *Mendekotasun balorazioa emana zaien adingabeak. GOFek emandako datuen arabera, 2016ko abenduaren 31n, 17 urteko 705 adingabe zeuden balorazio hori emanak Mendetasun Baloratzeko Baremoarekin. Baloratutako adingabe guztietatik, %58 (407 kasu) mendekotasun graduren bat duten adingabeak ziren –I. gradua (149), II. gradua (168) edo III. gradua (90)–, eta gainerakoek (298 kasu) balorazioa emana zuten baina mendekotasunik aitortu gabe. Mendekotasunen bat aitortua duten adingabeen artean (407 kasu), %67,8 mutikoak ziren eta %32,2 neskatoak. Adinari erreparatuta, honela banatzen dira mendetasun graduak: %25 5 urtetik beherakoak ziren (100); %37 6-11 urtekoak (149 kasu); eta %39 12-17 urteko haur eta nerabeak (158 kasu).*
- *Istripu tasa. EAEko Osasunaren gaineko Inkestako datuen arabera, 2013. urtean, Arabako istripu kopurua (%7,1) EAEkoa baino zertxobait apalagoa da. Istripu horiek 0-14 urteko arabarren kasuan honako leku hauetan gertatu ziren: jolaserako edo kirolerako tokiak (%44,7), ikastetxea (%16,1), beste leku publiko batzuk (%35,5) eta etxea (%3,6). Horietatik guztietatik, %83,8 erorita gertatu zen, eta %16,2 tupust eginda edo zerbait jota.*

Gasteizko Udalaren datuen arabera, pixka bat igo da errepide istripuetan gertatu diren adingabeen kopurua, 25 ziren 2009an eta 63 2015ean. Igoera horien zergatiari dagokienez, bizikletaz gertaturiko kasuak igo dira; 6-19 urtekoen artean igo da gainerako adin taldeetan baino gehiago.

3.5.2. Bizimodua

Haur eta nerabeen bizimoduaren oinarritzko elementu batzuk datoz jarraian, bigarren mailako eta bestelako informazio iturrietatik hartuta.

3.5.2.1. Jateko ohiturak

Arlo horretan detektatutako premia nagusietako batek ikustekoa du haur eta nerabeen sektoreetako zenbaitetan dagoen jateko ohituren eta nutrizio kalitatearen probretzearekin. Osasunaren gaineko Inkesta Nazionalaren arabera, EAEn 2 eta 17 urte artekoen haur obesitatea igo egin da %5,1etik 2006an %7ra 2012an.

3.5.2.2. Jarduera fisikoa eta kirola

Araban jarduera fisiko osasungarria egiten duten nerabe eta gazteen ehunekoa, 2013ko datuen arabera, %80,7koa da¹². 2007ko datuen aldean, urte horretan %65 ziren jarduera fisiko osasungarria egiten zutenen ehunekoa, joera baikorra gertatu da arlo horretan. Dena den, alde handiak daude generoari erreparatuta, 15 eta 24 urte artean, jarduera fisiko osasungarria egiten dute mutikoen %85,2k, eta nesken kasuan hamar puntu beheragoa da (%75,7); eta, hortaz, 2007tik datozen desberdintasunak bere horretan dira.

2014-2015eko ikasturtean eskolako kirol jardueraren datuei begiratuta, Araban, %49,5 dago inskribatuta matrikulaturik dauden haurren guztizkotik; kopuru hori igoz joan da azken urteetan (2012-2013ko ikasturtean, %46koa zen ehunekoa). Kirol jardueraren gradua jaitsi egiten da kadeteetan; kasu horretan, DBHko 3. eta 4. mailako ikasle guztien %23 bakarrik daude inskribatuta kirolean.

Eskolako kirolean parte hartzen duten neskatoen kopurua (6.289) %34koa da, mutikoena baino apalagoa (9.496). Kategoria guztietan dago nesken eta mutikoen arteko desberdintasun hori.

Entitate antolatzaileen motari dagokionez, 2014-2015ko ikasturteko datuetan, inskribatutako 261 entitateetatik ikastetxeak 63 bakarrik zirela ageri da, eta izen-emandako ikasleak %50,5 zirela eskolako kirolean parte hartzen duten ikasle guztietatik.

3.5.2.3. Droga kontsumoa eta beste mendekotasun batzuk

Azken azterketa epidemiologikoetako datuen arabera, EAEn nahiz estatuan, ikusten da azken urteetan, oro har, jaitsi egin dela drogen kontsumoa, eta, edonola ere, adin txikikoen artean ez da handitu kontsumo prebalentzia. Ez dago datu espezifikorik Gasteizko edo Arabako datuak erazteko. Jarraian, 2014. urteko prebalentzia nagusiak EAEn¹³, 14-18 urtekoen legeko nahiz lege kanpoko droga kontsumoaz denaz bezainbat:

Alkohol kontsumoa: azken urteetan kontsumo prebalentzia orokorrak gutxitu egin badira ere, nerabeen kasuan ez da horrelako joerarik izan; hortaz, berdintsuak dira 2006ko kontsumo prebalentzien datuak eta gaur egungoak. Gehien alkohola kontsumitzen duten 14-18 urteko

¹² EAEko Osasunaren Inkestak galdetegi batez neurtzen du jarduera fisikoa (IPAQ estandarra eta baliozkotua). Galderen artean dago zenbat egunean eta zenbat denboraz aritzen den jarduera fisiko gogorra, moderatua edo ibiltaria egiten gutxienez 10 minutuz zazpi eguneko epea hartuta; bai denbora librean edo aisialdian eta bai etxeko lanetan, lantokian edo lekualdatzeetan.

¹³ *Encuesta sobre Uso de Drogas en Enseñanza Secundaria en España (Estudes)*. EAEko datuak.

ikasleek. Oso hedatua dago: 2014an, %82,9k zioten noizbait probatu dutela, eta %71,5ek hilabete horretan kontsumitu zutela.

Tabakoaren kontsumoa: Bigarren Hezkuntzako erkidegoko ikasleen %42,3k zioten behin edo beste probatu dutela tabakoa; horietatik guztietatik %8,6 zioten egunero erretzen zutela. Alkoholarekin gertatzen ez den bezala, tabako kontsumoa jaitsi egin da, tamaina handian; izan ere, 2006an, egunero erretzen zutenak %16,4 ziren.

Kalamua eta beste substantzia batzuk: kalamua da legez kanpo gehien kontsumitzen den substantzia psikoaktiboa 14-18 urteko ikasleen artean (eta oro har gizartean). 2014an, nerabeen hirutik batek baino gehiagok (%36,1) probatu du noizbait; %31,8k urte horretan eta %23,2k hil horretan. Kalamuaren kontsumoa berdintsu dago 2010. urtetik. Legez kanpoko gainerako substantziak, berriz, askoz hedapen txikiagoa dute, eta beranduago sartzen dira: 14-18 urteko hamar gaztetatik batek (%10,3) dio noizbait kontsumitu duela kalamua ez den legez kanpoko drogaren bat, eta %8,3k eta %7,2k diote duela ez asko kontsumitu dutela (joan den 12 hilabetean) eta gaur egun (joan den 30 egunean), hurrenez hurren.

Jokoa: Internetekin eta joko plataforma berrien zabalpenarekin loturik den arazo berrietako bat da. Eusko Jaurlaritzako Adikzioen Inkestak emandako datuetan, 2012. urtean, problematika horren prebalentzia herritarren %0,4rengan dago. Adinka analizatutako prebalentzia horretatik, ikusten da arazo hori nabarmen handitzen dela adinarekin, eta, 55-74 urtekoek %0,7ko prebalentzia badute, %0,2koa da 15-34 urteko gazteetan.

Teknologia digitalekin eta haien aplikazioekin zerikusia duten nahasmenduak, nahiz eta oraindik ez dauden adikzio gisa aitortuak, portaera konpultsiboak eta mendetasuna eragin ditzaketela jotzen da. Adikzioen 2012ko Inkestaren arabera, erkidegoko 15-74 urteko herritarren %3k modu arriskutsuan edo gehiegi erabiltzen du Interneta. Erabilera problematikoa dakarren prebalentziarik handiena 15-34 urteko herritarretan dago, eta modu arriskutsuan erabiltzen dute 15-24 urteko hamar gaztetatik batek.

3.5.3. Eskola jazarpena (*bullying-a*)

Ez da arazo berria, baina azken urteetan sentsibilizazio eta kontzientzia handiagoa dago berdinen artean eskoletan gertatzen den jazarpeneren inguruan. Gasteizko datu espezifikorik erazterik ez badago ere, ISEI-IVEIk EAerako 2016an argitaratu zuen azken azterketaren emaitzek balio dute Gasteizko egoera interpretatzeko:

2005-2016 artean, tratu txarrak zertxobait igo dira. 2016an, Lehen Hezkuntzako hirugarren mailako ikasleen artean %19,7koa da tratu txarren indizea, DBHkoetan, %18,8koa da. Tratu txarrak bi puntu portzentual igo ziren Lehen Hezkuntzan eta 6,9 puntu Bigarrean.¹⁴

Ahozkoa da tratu txarrik ohikoena. Bai Lehen Hezkuntzan eta bai DBHn, ahoskoa da biktima gehien dakarren tratu txar mota: ikasleen %16,2k sufritzen duten Lehen Hezkuntzan, eta %13,4k DBHn. Distantzia handira dator bigarren tratu txar ohikoena, "gizarte bazterketarena" —kasurik egiten ez zaien eta parte hartzen uzten ez zaien pertsonena—; Lehen Hezkuntzako ikasleen %8,3ri gertatzen zaie eta Bigarrenekoen %5i.

Ziberjazarpeneren eragina %3,3koa da Lehen Hezkuntzan, eta %3,1ekoa DBHn. Horrelako tratu txarren biktimak zertxobait igo dira 2012tik. Lehen Hezkuntzan, %2,8tik %3,3ra igo da

¹⁴ ISEI-IVEIk txostenetan dakarrenez, tratu txarren indizea kalkulatzeko, kontuan hartzen da ikasleak ikasturtean sufritu duen tratu txararen maiztasuna, "maiz" eta "beti".

hura jasan dute ikasleen ehunekoa, eta DBH, are gehiago, 2012an %1,8 bazen, 2016an %3,3 izan da.

Tratu txarrak jasan dituzten ikasleetan maiztasun handiago dute ezaugarri soziodemografiko batzuek. Bai Lehen Hezkuntzan eta bai DBHn, maizago suertatzen dira biktimak mutikoetan, atzeritik etorritako ikasleetan, beheragoko maila akademikoan daudenetan eta oinarritzko ikasketa mailak dituzten familietan.

Bazterketa egoerak izaten dira ikasleen artean, halaber, generoagatik eta orientazio sexualagatik. Bigarren Hezkuntzan igo egin da orientazio sexualagatik bazterketa dagoela sumatzen dutenen ehunekoa. DBHn, gorago dago bazterketa mota horren ehunekoa, zergatik eta pertsona hori gay dela jotzen delako (%19,2) eta norbaiten orientazio sexualaz zurrumurruak daudelako (%11,9).

3.5.4. Sexualitatea

HBSC azterketaren azken datuek¹⁵ agerian uzten dute 2014an erkidegoko 15-18 urteko nerabeen laurdenak (%23,9) harreman sexual osoak eduki dituela. Proporzio hori jaitsi egin da zortzi urte lehenagoko datuei begiratzen badiegu; HBSCk 2006an EAerako ematen dituen datuetan %30,2ko prebalentzia ematen dute.

Zenbait jarrera sexuak dakarten arriskua ikusita, azterketak EAerako ematen dituen datuetan orobat jarri zen agerian 2006 eta 2014 bitartean lehen harremanaren batez bestekoa pixka bat jaitsi dela (15,2 urte 2006an eta 14,9 urte 2014an); bestalde, gehienek antisorgailuak erabiltzen badituzte ere (%91), nerabe portzentaje bat dago batere erabiltzen ez duena (%3,8) edo seguruak ez diren metodoak erabiltzen dituen, hala nola kanpoan hustea (%4,6).

Arabako 18 urtetik beherako nesken datuei dagokienez, haurdunaldia borondatez eten zutenen kopurua 2015ean 22koa izan zen (13-17 urteko 1.000 neskako 3,27). Nolako eboluzioa izan duen begira jartzen bagara, ikusiko dugu eteten duten neskatoen kopuruak gora egin duela 2006tik (13-17 urteko 1.000 neskako 1,80). Dena den, gaur egungo tasa oso apal dago ikusita orain urte batzuk zeuden kopuruak (2011n 31 etete izan ziren, eta tasa, berriz, hau: 13-17 urteko 1.000 neskako 5,1).

3.5.5. Genero indarkeria eta familia barruko indarkeria

Emakundek emandako datuen arabera, erkidegoko Poliziak emakumeen aurkako indarkeriaren 2016ko kasuak ofizialki erregistratu zituenean, Ertzaintzak bederatzi emakume adingabe erregistratu zituen Araban genero indarkeriaren biktima (erasotzailea bikotekidea edo bikotekide ohia izanik), eta hamasei adingabek askatasun sexualaren kontrako erasoak jasan zituzten¹⁶.

Horrez gain, Ertzaintzak 18 urtez beherako hamazazpi neskato jaso zituen familia barruko indarkeriaren biktima gisa, eta 2012-2016 epean, nahiko konstantea izan da kopuru hori batez besteko hogeitau neskatoen bueltan. Kasu gehienetan aitak neskatoari egindako erasoak izaten da¹⁷.

¹⁵ Moreno, C., et al., (2016). *Los adolescentes españoles: estilos de vida, salud, ajuste psicológico y relaciones en sus contextos de desarrollo Resultados del Estudio HBSC-2014 en España/Informes por Comunidades Autónomas*. Madrid: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa.

¹⁶ Erreferentzia egiten dio emakumeen kontrako indarkeria sexualari, erasotzaileak familiaren esparrutik kanpo gauzatzen duenean indarkeria hori ("askatasun sexualaren kontrako" delitu gisa dator Zigor Kodean).

¹⁷ "Familia barruko indarkeria" epigrafean, Emakundek emakumearen aurkako indarkeria dakar, bizikidetzaren unitateko edo familiako norbaitek egiten duenean, eta ez da hor sartzen bikotea edo bikotekide ohia.

Inportantea da aipatzea, hala berean, gero eta kezka handiagoa dagoela seme-alabek gurasoei egindako indarkerian. Arabako Fiskaltzaren arabera, seme-alabek bere sortzaileei egindako indarkeriaren fenomenoak kezagarria da, eta eragin esanguratsua du bai helduen esparruan eta adingabeenean. Zoritxarrez, estatistika ofizialek ez dute behar adina datu ematen horrelako kasuak zenbatzeko orduan.

3.5.6. Legea urratzen duten adingabeak eta indarkeria jasateko arriskua eta aurrea hartzea

2015ean, epai irmoa eman zieten Araban 14-17 urteko 89 neska-mutikori, hau da, adin horretako guztizkoaren %0,82. Zigortutako pertsonen tasa askoz handiagoa izan zen mutiletan (%1,33, eta nesketan %0,3); kondenatutako adingabeko guztien artean %18 neskek ziren.

Ikuspegi konparatu batetik, 2013ko, 2014ko eta 2015eko datuek erakusten dutenez (urte horietan bakarrik argitaratu dituzte probintzia mailako datuak), adingabeen tasa zertxobait handiagoa da Araban EAEn baino. Araban hartutako neurrien artean, gehienak komunitaterako laguntzak izan ziren (%26) eta askatasun zaindurako neurriak (%21); horien atzetik datoz, berriz, gizartea hezteko zereginak (%15). Kasuen %8tan bakarrik egon zen (EAEn %15ekoa da) epaileak hartutako neurrietan 18 urtetik beherakoa egoitzetan sarraraztea.

Indarkeria egoeren arriskua eta aurrea hartzea: Gasteizen on line bidez galdekatutako haur eta nerabeen %10 inguruk maiz sumatzen dituzte (ez nahitaez biktima gisa) zenbait indarkeria egoera auzoetan, ikastetxeetan eta etxean bertan. Bildutako datuen arabera, %8,8k uste du auzoan maiz gertatzen direla indarkeria egoerak haur eta nerabeetan; %12,4k gauza bera uste du, baina ikastetxean eta etxean proportzio berean uste du gurasoek beti edo gehienez zigortu eta oihu egiten dietela.

3.5.7. Aisia eta denbora libre

Zein toki, jardura eta konpainia nahiago dituzten

Gasteizko adingabeen eta nerabeen hiru laurdenak kalea jo zuen aisiarako gunerik gogokoena (%77,2).

Kalearen atzetik dator etxea. Alde horretatik, galdekatutako haur eta nerabeen %62k esan zuen denbora libre hartzekotan beren etxea edo adiskideena gogoko zutela.

Horietatik —kalea eta etxea— distantzia handira daude beste espazio batzuk; esaterako, ikastetxea (%22,5), kiroldegia (%19,3), zinema (%17,5) eta saltoki handiak (%16,7); aukera txikienekoak dira lokalak (%6,9), gizarte etxeak (%5,1) eta kultureguneak —liburutegiak, antzerkia, museoak...— (%2,8).

3.12 taula

Aisialdiaz gozatzeko gogokoan dituzten tokiak							
	Kalean	Etxean edo adiskideenean	Ikastetxean edo ikastolan	Kiroledegian	Saltoki handietan	Lokaletan	Zinemak, kulturguneeetan edo gizarte
Neskak	78,8	61,8	23,7	15,6	23,2	6,7	27,3
Mutilak	75,4	62	21,2	23,4	9,7	7,1	21,8
Adina							
11-13 urte	73,7	62,1	31,3	20,2	14,1	3,4	21,9
14-17 urte	82,8	61,5	8,4	18	21	12,4	29,1
Jatorria*							
Autoktonoa	79,3	60,1	22,9	21	15,1	7,1	24,3
Atzerritarra	70,9	68,8	19,1	14,6	23,1	7	26,6
Guztira	77,2	61,9	22,5	19,3	16,7	6,9	24,7

Iturria: Gasteizko Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 4. mailakoen iritzi azterketa.

* Atzerrikotzat hartzen da ikaslea bera atzerrian jaio bada edo bi gurasoetako bat atzerrian jaio bada.

Jarduera gogokoenei dagokienez, haur eta nerabe gehien-gehienek adiskideekin pasatu nahi izaten dute denbora, jolasten eta egonean (%71,6), musika entzuten (%57), kirola edo jarduera fisikoa taldean egiten (%54,9) eta telebista sailak edo programak ikusten (%40,7). Berdinen arteko topaketak eta gizarte harremanak dira oraindik aisialdiaren lehentasunezko elementu sozialak.

Gogobetetzea aisialdian eta denbora librean

Oro har, gogobetetasun handia dago aisialdiaz denaz bezainbatean. Galdekatutako haurren %2,6k bakarrik dio ez dagoela oso konforme edo ez dagoela batere konforme aisialdian egiten dituen gauzeekin.

Haur horien iritzian, aisialdian ondo ez pasatzearen arrazoiak dira denbora falta, baliabide ekonomiko urriak, gogoko guneen urruntasuna eta egoitza egokien falta eguraldi txarra denean.

Adostasun maila handia dago galdekatutako adingabeen artean, familiaren babesa sumatzeko orduan. Galdekatuen %92,2k familiaren babesa sumatzen dute aisialdiaz gozatzeko orduan.

Galdekatutako lau ikasletatik hiruk diote beren atseginekoa dela hirian dagoen eskaintza. Desberdintasunak daude adinean. Gaur egungo eskaintzak 11-13 urteko haurren %81 hartzen ditu; %68, berriz, adin handiagokoetan; nerabeak, berriz, deskonformeago daude denbora libreko jardueren eskaintzarekin.

Haur eta nerabeen erdiek baino gehiagok uste dute nahiko informazio dutela hirian aisialdiko eta denbora libreko jardueren gainean; %47k, berriz, dio ez duela behar beste informazio.

Hiriko aisia eta denbora librea hobetzeko proposamenak

Galdetegian azken galdera bat zetorren hiriko aisialdia hobetzeko egin ahal diren gauzeekin; galdekatutako haur eta nerabeei eskatu zitzaizen jarduera horien garrantzia markatzeko.

Aipaturiko neurrien artean, zazpi guztira, kontsentsu handiena bildu zuten: "udalari geuk proposatzea gustukoan ditugun jarduerak" (%79,3k esan zuten horrek "asko" edo "nahikoa" hobetuko zuela aisialdian gozatzeko modua), "kirol erako jarduerak antolatzea" (%78,7), "bestelako jendea, beste auzo batzuetakoa, ikastetxeetakoa, herrialdeetakoa edo beste


zaletasun batzuk dituen ezagutzeko aukera ematen duten jarduerak antolatzea" (%75,1)
eta "denok parte hartzeko moduko jarduerak antolatzea" (%66,6).

3.6 HIRI INGURUNEA ETA GIZARTE PARTAIDETZA

Atal honetan hiriko haur eta nerabeek hiriguneaz duten balorazioa jaso zen, funtsezko elementua baita herritarren egunerokoan eta, bereziki, haur eta nerabeenean.

3.6.1. Hirigunea: balorazioa eta hobetzeko elementuak

Ikasleei egindako galdetegian, hiriko ekipamenduz eta azpiegiturez galdetzen zitzaien: berdeguneak eta lorategiak; kiroldegiak; jolasguneak eta aisiaguneak; saltokiak (dendak, supermerkatuak, jatetxeak...); garraio publikoa; ikastetxeak, gizarte etxea; eta osasun etxea. Oro har, galdekatutako haur gehienek baikortzat dituzte azpiegiturak eta aipaturiko guneak. Gunerik kaxkarrenak jotzen dituzte, balorazio baikorra badute ere, kiroldegiak, gizarte etxeak, saltokiak eta ikastetxeak.



Iturria: Gasteizko Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 4. mailakoen iritziz azterketa.

Emaitzek erakusten dute, oro har neska-mutikoen antzera baloratzen dituztela aipaturiko elementuak. Desberdintasunik handienak adinaren aldagaian daude. 14 urteko edo hortik gorako DBHko ikasleek balorazio ezkorragoak egiten dituzte gazteenek baino aisialdiko gunez, saltokiez eta garraio publikoaz.

Bestalde, galdetegian eskatzen ziren adierazteko **elementurik inportanteenak eta zertan hobe litekeen** hirigunean.

Jasotako erantzunen arabera, aipaturiko alderdietatik inportanteenak dira segurtasuna, lasaitasuna eta garbitasuna. Hiru kasu horietan, galdekatutako haur eta nerabeen hiru laurdenak uste du bere auzoan garrantzi handia dutela elementu horiek. Horien atzetik daude irisgarritasuna eta auzokideenganako harremana; oso inportantetzat dituzte galdekatutako haurren bi herenek gutxi gorabehera. Azkenik, kutsadura, ingurumen arazoak eta edertasuna daude; balorazioen %50 inguru, eta horrek ere garrantzi handia duela ikusten da.

Galdekatutako ikasle gehienek uste dute beren auzoak hobe daitezkeela. Aintzat harturiko arloen artean, hobetzekotzat dituzte garbitasuna (%68,7), irisgarritasuna (%67,4) eta segurtasuna (%63). Horien atzetik datoz ingurumen arazoak, edertasuna eta auzokideenganako harremanak, denak ere %55etik beherako proportzioan. Nabarmentzekoa da, azkenik, lasaitasunarena, ez dagoela hobetu beharrik galdekatutako haur eta nerabeen erdia pasarentzat.

Oro har, neskek garrantzi handiagoa ematen diete mutikoek baino auzoko segurtasunari; era berean, hobekuntza tarte handiagoa ikusten dute ingurumen arazoetan. Adinari dagokionez, esanguratsuak dira zenbait alderditan dauden desberdintasunak. Oro har, adin txikiena dutenek (11-13 urte) lasaitasun eta ingurumen aldetik ikusten dute hobekuntza tarte handiagoa.

3.6.2. Haurren eta nerabeen parte hartzea hiriko gaitan

Haurren parte hartzea da Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenean aitortuta dauden eskubideetako bat. Bertan, ezarrita dator estatuek bermatu egin behar dutela haurrek beren iritzia eratztea, eta libreki adierazteko eskubidea berari dagozkion gaitan, kontuan hartuz haren iritzia adinaren eta heldutasunaren arabera (hitzarmenaren 12. art.). Gasteizko gazte galdekatuek beharrezkotzat dute partaidetza, eta diote gauza direla hura erabiltzeko


Gaitasuna, ezagutza eta hobekuntza proposamenak haurren ikuspegitik

Gaitasun subjektibo handia dago hiriko haur eta nerabeen partaidetzaren inguruan. Hamarretik ia bederatzia (%89) ziur daude hiria hobetzen lagundu dezaketela. Eta galdekatutako hiru laurden baino gehiago, berriz (%77,1%), gai sentitzen dira beren interesak defendatzeko.

3.3 grafikoa

Opinión sobre diferentes cuestiones relaciones con la participación de la infancia en la ciudad por parte de los niños, niñas y adolescentes de Vitoria-Gasteiz. 2017

¿Estás de acuerdo con las siguientes afirmaciones?



Iturria: Gasteizko Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 4. mailakoen iritzia azterketa.

Gaitasun handi hori izanik ere, irudipena da haurren iritzia ez dituztela entzuten eta ez dituztela aintzat hartzen. Erdiek baino gehiagok (%52,1) uste dute erabakiak hartzen dituztenek ez dituztela haurrak aintzat hartzen.

Hirian haurren partaidetza hobetzen lagunduko luketen ekimenen artean, entzutearekin zerikusia dutenak jartzen dituzte:

- %62,2k uste du asko hobetuko litzatekeela partaidetza ez bakarrik beren iritzia aintzat hartuta, baizik eta baita eskumena dutenen eskutik erantzuna jasota ere.
- %55,5ek oso garrantzitsutzat du espazioak sorraraztea, zertarako eta haur eta nerabeak seguru eta aske sentiarazteko beren iritzia emateko orduan.
- Baikortzat dituzte, hala berean, ahaldundu eta eskumenak hobetuko lizkieketen ekimenak, baina neurri txikiagoan.

3.13 taula

Zenbat hobetuko litzateke hiriko partaidetza ekintza hauekin? (Seinalatu X batekin baieztapen bakoitzari emandako erantzuna)				
Ekintzak	Asko	Nahiko	Gutxi	Batere ez
Aintzat hartzea gure iritziak, eta erantzuna jasotzea	62,2	30,0	5,8	2,0
Espazioak sortzea gu seguru eta libre sentitzeko gure iritzia emateko orduan	55,5	31,7	9,5	3,3
Guri dagozkigun arazoak konpontzeko gaitasuna handitzea	47,5	41,2	8,6	2,8
Gure eskubideak hobeto ezagutzea	41,6	41,7	13,3	3,4
Nola parte hartu ikastea	35,2	44,7	16,2	3,9

Iturria: Gasteizko Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 4. mailakoen iritzi azterketa.

3.6.3. Haurren eta nerabeen parte hartze kanalen egoera hirian

Haurren parte hartzea, I. HANUP onartu zenetik ere, funtsezko erronka bat izan da Gasteizko Udaleko haur politikaren esparruan. Azken urteetan, programa batzuk martxan jartzen joan da udala haurren eskubideak sustatzeko eta haur eta nerabeen partaidetza bultzatzeko.

2008. urtean, martxan jarri zuten **Haur eta Nerabeen Elkargunea**, udalaren partaidetza-organo bat, 8-14 urteko haur eta nerabeentzat pentsatua, Aktiba(tu) Haurren parte hartze Programaren barnean. Udala eta haurrak zuzenean lotzen dituen kanal bat da, eta hiriko gaiez hitz egin dezakete. Gainerako Elkarguneekin batera Gizarte Kontseilua osatzen du.

Azken urteetako aurrerapenen artean, nabarmentzekoa da **Aktiba(tu) haur eta nerabeen parte hartze programa**, 2014-2015eko ikasturtean abiatua Haurtzaro eta Senitarte Zerbitzuaren eskutik; adingabeentzako programa eta jarduera sail handi bat dakar. Zorroztasun asmorik izan gabe, hauek dira programaren proiektu eta izari nagusiak:

Eskubideen batzordeak: 8-18 urteko neska-mutikoentzat, 2012-2013ko ikasturtetik dago martxan, Gasteiz Hiri Hezitzailearen bidez ikastetxeetarako eta adin horretako neska-mutikoekin zerikusia duten arloetarako pentsatua (aisialdiko taldeak, gizarte etxeak...). Giza Eskubideen Hitzarmenean datorren gai edo eskubide bat hartzen dute urtero batzordeek, eta, saio askotarikoen bitartez, eskubide hori nola gauzatzen den aztertzen dute neska-mutikoek beren ingurune hurbilean, bai eta hura nola hobetu eta berek zer egin dezaketen ere. 2016-2017ko ikasturtean, 43 Talde izeneko programa landu dute 964 partaidek.

Hirikoak: 8-14 urteko neska-mutikoentzat, parte hartzen ikasteko esperientziak eskaintzea da helburua. Helburu horrekin, hainbat saiotan, neska-mutikoek udalaren zenbait gai aukeratzeko dituzte, elkarren artean adostuta, haiengan eragina dutelako edo interesatzen zaizkielako, eta ondoren errealitatea aztertu eta arlo horrekin lotutako ekintzak eta proposamenak lantzen dituzte. 2016-2017ko ikasturtean, hamazazpi talde osatu dira bost ikastetxetan eta 336 haurrek hartu dute parte.

Haurrek eta nerabeek parte hartzeko foroak: Elkartzeko eta parte hartzeko taldeak dira, non neska-mutilek beren iritziak eman eta hiriko parte aktibo eta arduratsua diren neurrian beren itxaropenak partekatzen baitituzte, hirian abiarazten diren parte hartzeko prozesuetan arituz, edo udalarekin lotutako gai interesgarri bati buruzko kontsulta zehatz batean esku hartuz, Haurtzaro eta Senitarte Zerbitzuak nahiz udaleko beste sail batek proposatuta. 2016-2017ko ikasturtean 11 talde osatu ziren.

Antzerki Foruma: 14-18 urteko neska-mutikoentzat. Jarduera honen bidez, aurretik Eskubideen Batzordeetan landu diren eskubideei buruzko ikuspegia garatu eta zabaltzen da, giza eskubideak oro har aintzat hartzeko, eta orobat lantzen dira eskubide horiek baliatzearekin lotutako erantzukizun pertsonalak ere. Ikasturte bakoitzean gai edo eskubide jakin bat hautatzen da, Gasteizko errealitatearen gainean eztabaidatuz eta gogoeta eginez trebatu daitezkeen gazteak; tresnatzat erabiltzen da praktika sortzailea eta artistikoa, eta prozesu osoan protagonista izan

daitezen bultzatzen da. 2015-2016 ikasturtean, bost ikastetxetako hamabi gela aritu dira, eta guztira 271 ikaslek hartu dute parte.

Zabalkunde eta sentsibilizazio jarduerak: Aktiba(tu) Haur eta Nerabeek parte hartzeko programaren barruko jarduera ezberdinez gain, jarduera jakin batzuk gauzatu dira ikasturte bakoitzean, eta ikasturte amaierako jarduera bat (Aktiba(tu) planeta), komunitatea sentsibilizatzeko eta ikusarazteko haurrek eskubideak dituzten subjektuak direla eta komunitate osoaren erantzukizuna dela eskubide horiek betetzea. Jarduera horietan parte hartu dutenak zenbatuta, guztira 870 lagun batu dira.

Aktiba(tu) programatik kanpo, nabarmentzekoak dira beste jarduera eta prozesu batzuk, udaleko askotariko zerbitzuek sustatuak, zeinak saiatzen baitira haur eta nerabeen partaidetza prozesuak errazten eta ikuspegi hori txertatzen. Hauek dira garrantzitsuenak: Herritarren Partehartzerako Zerbitzuak sustatzen dituen programak, hala nola Gasteiz Hobetuz Programa (helburua da hiria modu bateratuan hobetzea adinari begiratu gabe) 2016an; Hirigintza Saila, Indarreko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra berrikusteko herritarren partaidetza prozesuen esparruan.

Partaidetza prozesu horietatik aparte, hobetu beharreko arlotzat joa izan da **Udaleko Eskola Kontseilua**, 2013an eratu zenetik zailtasunak izan baititu sektoreko parte hartze organo horrek ikasleen ordezkari bat ezartzeko. Nabarmentzekoa da, alde horretatik, gaur egun ez dagoela ikasleen ordezkariarik nahiz eta Gasteizko Udal Eskola Kontseiluan indarrean den araudiak ekartzen duen zer eta bost ikasle ere har ditzakeela ordezkarietan.

3.7 HAUR ZAURGARRIENTZAKO ETA BABESGABETASUN ARRISKUAN DIRENTZAKO ZERBITZUA

Atal honetan, laburturik datoz analizatu diren zenbait kontu esanguratsu, hala nola seme-alaba adingabeak dituzten familien kopurua eta ezaugarriak, baldin udaleko gizarte zerbitzuek artatu badituzte programen, zerbitzuen eta laguntzen bidez, eta orobat udalerrian babesik gabe dauden haur eta nerabeei buruzkoak.

3.7.1. Udaleko gizarte zerbitzuek artatu dituzten familiak, seme-alaba adingabeak dituztenak: eboluzioa eta ezaugarri nagusiak

Urte hauetan guztietan, seme-alaba adingabeak dituzten askoz familia kopuru handiagoa artatu behar izan da, eta horrekin batera, igo egin da berebat detektatu den haur eta nerabe babesgabeen kopurua maila guztietan. 2013-2016 artean, %12 handitu zen adingabeak zituzten familia artatuen kopurua udaleko gizarte zerbitzuetan, bai eta 18 urtetik beherako adingabe artatuen ere, %18.

3.14 taula

18 urtetik beherako seme-alabak dituzten familia kopuruaren eboluzioa Gasteizko Udaleko Gizarte Politiken Sailean. 2013-2016		
	2013	2016
	Kopurua	Kopurua
Arreta jaso duten familiak: guztira	15.200	14.320
Arreta jaso duten pertsonak: guztira	27.840	28.753
Arreta jaso duten familiak: 18 urtetik beherako adingabeak dituztenak	3.867	4.343
Arreta jaso duten 18 urtetik beherako pertsonak	6.724	7.936

Iturriak: Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Saila. Gasteizko Udala.

Adingabeak dituzten familien espedienteetan hiru problematika nagusi jaso dira, alor ekonomikoa, informazio falta eta laneratzeko zailtasunak. Hurrenez hurren, seme-alaba adingabeak izanik arreta jaso duten familien %78k, %60k eta %56k dituzte arazo horiek.

Era berean, prebalentzia gorabehera, gehien handitu diren problematikak bi dira: etxeko indarkeria eta generoagatikoa (324 familia 2013an eta 470 2016an); eta haur eta nerabe babesgabeak, zeinak joan deneko hiru urtean ugaritu egin baitira %24 —hortaz, 647 familia zirenak 2013an, 805 dira 2016an—. Dauden datuetik ondorio bat dator, askotariko arazoak izatearena ere ugaritu egin dela; izan ere, 2013tik 2016ra batezbesteko arazo kopurua 3,18tik 3,29ra igo da.

3.7.2. Gasteizko udalerriko haur eta nerabe babesgabeen arrisku egoerak

Gizarte Zerbitzuen arreta jaso duten adingabe gehien-gehienek ez dute izan babes faltarekin lotutako arazorik, ez 2013an (%91) eta ez 2016an (%89).

Hala ere, joan deneko hiru urtean babesik gabe gelditu direnen kopurua %45 igo da; gehiago handitu da arretarik jaso gabe gelditu diren adingabeen kopurua baino (%18 handitu da hori).

3.15 taula

Babesgabetasuna sufritu duten adingabekoetatik Gizarte Politiken Sailaren arreta jaso dutenen kopuruaren eboluzioa Gasteizen. 2013-2016				
	2013ko aben. 31		2016ko aben. 31	
	Kopurua	%	Kopurua	%
Babesgabetasun arazorik gabe	6.122	%91,0	7.064	%89,0
Babesgabetasun arazoa dutenak	602	%9,0	872	%11,0
Balorazio prozesuan	235	%3,5	330	%4,2
Babesgabetasun arina	46	%0,7	111	%1,4
Babesgabetasun moderatua	231	%3,4	315	%4,0
Babesgabetasun larria	90	%1,3	116	%1,5
Guztira	6.724	%100	7.936	%100

Iturriak: Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Saila. Gasteizko Udala

2016ko abenduaren 31ko datuek erakusten dute, hortaz, udaleko Gizarte Zerbitzuen arreta jaso duten adingabeen guztizkotik (7.936 pertsona), %11k (872 adingabe, guztira, hau da, hiriko adingabe guztien %2,1) babesgabetasun arazo bat dutela.

Horietatik %37,8 (330 adingabe) balorazio prozesuan zeuden, eta, gainerakoen kasuan (542 adingabe), BALORA tresna aplikatzearen ondorioz —arrisku egoeren eta babesgabeziaren larritasuna neurtzeko tresna—, arrisku arina baloratu zieten 111ri, moderatua 315i eta larria 116ri.

Hortaz, datu horiek iradokitzen dute gaur egun babesgabetasun prozesu aurreratuetan direnengan ari dela esku hartzen udala eta, horretan oinarrituta, desiragarria litzateke detekzio goiztiarra indartzen jarraitzea, zertarako eta detektatu gabeko babesgabetasun egoerak ez okerragotzeko; izan ere, adingabeentzat kalte handiagoa letorke eta kasua gero lantzen zailagoa izango litzateke.

Detektatu diren arazoei dagokienez, hauek dira maiztasun handieneko bostak: behar psikikoenganako neglijentziekin zerikusia dutenak, zeinak babesgabetasun arazoak dituztenen %39 baitira, babesgabetasuna sufritzeko arriskua (%29), prestakuntza beharrekin zerikusia duen neglijentzia (%26), gurasoen ezintasuna adingabeen jarrera kontrolatzeko (%21) eta tratatu txar emozionala (%17). Denak batuta, gaur egun Gasteizen bizi diren adingabeen %0,4 eta %0,8ri eragiten diete arazo horiek.

3.7.3. Gorabidean diren kolektiboak eta premia nagusiak

Gasteizko udaleko gizarte zerbitzuen arreta jasotzen duten adingabeen eboluzioari eta ezaugarri nagusiei buruzko datuen analisiaren ondotik, hona hemen alor horrekin zerikusia duten balorazioak, arloko profesionalak elkarrizketa bidez adieraziak.

Galdekatutako profesionalak erabiltzaileen soslai berri hauek identifikatu zituzten:

- Gurasoek seme-alaben jarrera kontrolatzeko ezintasuna duten familiak. Nerabezeroan agertzen dira batez ere. Arazo horietan sartzen dira seme-alabek gurasoei egindako indarkeria —dena den, oso kasu gutxi daude—.
- Seme-alaben prestakuntza premiak betetzen ez dituzten familiak (aitak eta amek ez diete behar besteko garrantzia ematen eskolatzeari edo seme-alabak eskolara joateari eta ikasteari), orobat premia psikikoak betetzen ez dituzten familiak, hala nola estimulazioa, konfiantza eta maitasuna.
- Familia atzerritik etorria duten nerabeak baina nahiz eta hemen jaio familiaren izaera kulturala gizarte hartzailearenarekin bateratzeko zailtasunak dituztenak.
- Seme-alaba adoptatuak dituzten familiak baina funtsezko zenbait egoeratan krisiak jotzen dituenak eta ondorioz babesgabetasun arriskuan gelditzen direnak.
- Gatazka egoerak eta bizikidetzaz arazoak dituzten familiak, ezkontza banaketa bat dela medio, baina haurrak eta nerabeak manipulatuak eta erabiliak diren kasuetan.
- Gehiegikeria sexualaren biktima diren haur eta nerabeak. 2016an, hamalau kasutan adierazi zuten udaleko gizarte zerbitzuek familia barruko gehiegikeria sexuala egon zelako susmoa.
- Bakarrik diren atzerriko adingabeak. Nahiz eta bakarrik diren atzerriko adingabeen kopurua orain hamar urte zegoena baino txikiagoa izan, ikusten da asko falta dela aldagai hori desagertzeko; zaugarritasun bereziko egoerak dira, eta ezin dira iragarri, oso gorabeheratsuak dira. GOFEk emandako datuen arabera —hari dagokio arlo hori—, 2016ko azken hiruhilekoan zertxobait igo da horrelako adingabeen kopurua, eta joera hori bera dago 2017 hasieran.

Bestalde, galdekatutako profesionalek beste premia batzuk identifikatu dituzte alor horretan; **premia horiek zerikusia dute arrisku sozialean edo babesgabetasun arriskuan diren haur eta nerabeei emandako arretarekin**. Elkarrizketetatik, ondorio hauek ateratzen dira.

- Babesgabetasun kasuen detekzio eta esku hartze goiztiarra indartzea. Alde horretatik, funtsezkoa da gaztetatik —0 urtetik— prebentzio jarduerak sustatzen jarraitzea; horrela, arriskuan diren kasuak identifika daitezke babesgabe gelditu aurretik, eta, beraz, garaiz landu daitezke gurasotzarekin zerikusia duten trebetasunak sustatzeko programak eta prestakuntza.
- Ebaluatzea esku hartze sozioedukatiaren eta psikosozialaren programek nola funtzionatzen duten adingabeak dituzten familietan eta adingabeetan. Oro har, irudipena da gehiago ebaluatu behar liratekeela haurrak eta nerabeak dituzten familia zaugarriekin edo babesgabetasun arriskuan direnekin erabiltzen diren prebentzio eta babes programak.
- Beti hobetuz joatea profesionalen prestakuntza. Profesionalekin izandako elkarrizketetatik ondorioztatzen da, lanbidea gaurkotua eduki behar dela etengabe prestakuntza programak erabiliz. Horrez gain, Haurtzaro eta Senitarte Zerbitzuak uste du garrantzi izugarrikoa dela alor horretan behar bezalako prestakuntza sustatzea etorri berriak diren profesionalei.
- Esku hartzea zabaltzea familiaz gain; kolektibo horren esku hartzea ez litzateke gelditu behar eskusiboki eremu horretan. Bi arrazoi daude funtsean: esku hartze horiek ez direla aski baldin eta gurasoak ez badaude prest aldatzeko edo inolako babesik jasotzeko, eta haur eta nerabeetan badirela arrisku sozial askotariko batzuk ez daudenak zuzenki loturik gurasoen gaitasunekin.
- Gurasoen gaitasunak sustatzeko programak bultzatzea, haurrak behar bezala gara daitezen.
- Baliabideak egokitzea babesgabetasun arrisku larrian diren adingabeen beharretara. GOFEn Adingabearen eta Familiaren Eremuak egiaztatua du premiak daudela egoitzetarako baliabide guztiak beti okupatuta egotearekin zerikusia dutenak. Emandako arretan premiarik handienak dituzten kolektiboen artean, desgaitasunak eta osasun arazo mental benetan larriak dituzten adingabeak daude babesgabetasun larrian.

4 HAUR ETA NERABEENTZAKO II. PLANA

Haur eta Nerabeentzako II. Plana tresna bat da, non esplizituki adierazia baitator Gasteizko Udalak nolako konpromisoa duen gure hiriko haur eta nerabeekin 2018-2022 eperako.

II. HANUP honek bere gain hartu du haur eta nerabeen egoera jakin bati erantzuteko erronka: izan ere, diagnostikoan adierazi den bezala, gero eta erreferente sozial eta kultura ugariagoak dituzte haur eta nerabeek, eta gero eta aniztasun handiagoa dago, eta horrek eragina du familien egituretan; aipagai ditugun haur eta nerabe horiek, orobat, neurri handiagoan jasan dituzte krisi ekonomikoaren ondorioak gizarteko gainerako sektoreen baino. Egoera desorekatzen ari da, eta lehendik zituzten zailtasunei batuta etorkizun lazgarria gerta lekieke; gainera, belaunaldi arteko desoreka ere handitzen ari da.

II. HANUP honen erronka ez da erraza, eta horri aurre egiteko, kontuan eduki behar dira batetik udalaren eskumen esparrua, bestetik sail arteko politikak koordinatu beharra eta bestetik udalak duen izaera beste erakunde batzuk bultzatzeko; izan ere, erakunde horiek gai honi lorturik diren eskumenak dituzten aldetik, udala haien motorra izan daiteke.

II. HANUP lantzeko orduan, beste zailtasun bat dator ezjakintasunetik, zeren eta krisiak udalaren gaitasuna murriztu du alderdi askotatik, eta zaila da hiru-lau urteko epera jokatzera, ez baitago jakiterik nolako baliabideak izango diren aurrekontuetan Plana behar bezala aurrera ateratzeko.

Gorabehera hori gogoan izanik, eta kontuan harturik plan hau lau urtez egongo dela indarrean, neurriak era progresiboan aplikatzeko iragarpen bat egin dugu, zertarako eta aldian-aldian egokitzeko udalean egongo diren giza baliabide eta baliabide materialetara.

Planak berekin dakartza segimenduak egiteko tresnak, eta, hala, neurriak egokitu eta gehitu ahalko ditu, nolako informazio, aukera eta premia sumatzen diren II. HANUPeko ekintzak garatu eta aplikatu ahala.

Bi biurtekotan partitu da plana; berrikuspenaren mugarriztat hartu dugu indarrean egongo den bigarren urtea; asmoa da txosten bat egitea, batetik, prozesuen eta lorpenen analisi sistematiko kualitatibo eta kuantitatibo bat biltzeko, eta, bestetik, horrek berak balioko du plana eta ekintzak egokitzeko, iragarpen eta lehentasun ekonomiko berrien arabera.

4.1 **JUSTIFIKAZIOA: HAUR ETA NERABEETAN INBERTITZEKO PARADIGMA**

Erakundeen ikuspegitik, gaur egun, haur eta nerabeetan inbertitzeko paradigma soziala zera da, Europako erakundeek duten jokabide ofiziala Ongizate Estatuak dituen zailtasunei aurre egiteko. 2013ko otsailaren 20ko Europako Batzordearen gomendioaren arabera —"Haurretan inbertitzea: desabantailen zikloa puskatzea"—, Europar Batasuneko herrialde gehien-gehienetan, haurrek gainerako herritarrek baino arrisku handiagoa dute pobrezia eta gizarte bazterketa jasateko, eta pobrezia eta gizarte bazterketan hazten diren haurrek gainerako haurrek baino posibilitate txikiagoak dituzte eskolan behar bezala errenditzeko, osasun ona izateko eta bizitzako geroko fase guztietan beren potentzia osoa aprobetxatzeko. Baieztapen horretatik abiatuta, Batzordeak honela dio behin eta berriz: a) desabantailak belaunaldiz belaunaldi ez transmititzeko, funtsezkoa da haietan inbertitzea eta horrek, Europaren etorkizunari begira, onurak ekarriko ditu haurretan, ekonomian eta gizartean oro har; b) goiz esku hartu eta aurrea hartzen bada, politika efikazagoak eta efizienteagoak egin ahalko dira; eta, bizitzako lehen urteetan desabantailak zuzentzen badira, indar handiagoa izango da pobrezia eta gizarte bazterketari aurre egiteko.

II. HANUPek ikuspegi kontzeptual hori du abiapuntuan, oro har haur eta nerabeetan inbertitzeko paradigman txerta daitekeena. Azken urteetan, argudioen konstelazio berri bat ari da artikulatzen, inbertsio publikoak era proaktiboan joan daitezkeen haurren sektorearen alde. Diskurtso berriaren arabera, haurretan inbertituta gure gizartearen etorkizunean inbertitzen ariko gara. Alde horretatik, gizarte politikak lagundu egin behar dute dinamismo ekonomiko bat eratzen eta norbanakoa gaitzen, bere bizitzan sortzen diren lan aukerak aprobetxatzeko eta produktibitatea hobetzeko. Gizarte politikaren paradigma berri honetan, haurren gastu publikoa ez da gastu sozial bat, baizik eta gizarte produktibo baten inbertsioaren ardatz nagusia, etorkizunera proiektatua.

Helburua da haurraren etorkizuna zalantzan jar dezakeen arrisku mota oro saihestea. Ikerketa sozial erraldoi batean bermaturik, paradigma berri honek eskatzen du indarrak gehiagotzea haur pobrezia borrokatzeko, etxea eta lana uztartzeko zailtasunak dituzten familiei laguntzeko eta kultur eta heziketa baliabide txikiak dituzten familiei pizgarriak ematean eskolaurreko heziketan parte hartzeko (Mari-Klose et al, 2010).

Paradigma berri honen ezaugarri nagusia zera da, erreparatzeko politikak egiten indarra jarri beharrean preparatzeko politikak egitea, aintzat hartuta familiako politikak, hezkuntzazkoak eta genero berdintasunekoak, besteren artean; hor baitago koxka ez bakarrik gizartea garatzeko, baita ekonomia garatzeko ere. Abiapuntu horretatik, gune hauetan jartzen da arreta: haurretan inbertitzeko aukera ematen duten zerbitzuak; aukera berdintasunaren eta mugikortasun sozialaren sustapena; eta seme-alabak dituzten familien babesa eta emakumeek lan ordainduak izateko erraztasuna (Zalakain eta Barrague, 2017).

Ikusia dago haurretan inbertitzea berdintasunean inbertitzea dela. Adostasun zientifiko zabala dago gizartean ondorioak dakartzala pertsonen lehenbiziko urteetan inbertsioak egiteak edo ez egiteak; alde horretatik, ikergai aski landua izan da literatura ekonomikoan haurraren garapen goiztiarrarena.

Literatura ekonomikoak aztertuta du bizitzako lehen urteek nola eragiten duten neurri handian pertsona batek helduaroan izango dituen gertaera, erabaki eta emaitza sozialetan. Hain zuzen ere, ageri da desoreka handiagoak dituzten herrialdeetan, hau da, mugikortasun sozial txikiagoa eta lehen urteetan inbertsio sozial txikiagoak egiten dituztenetan, gehiago nabarmentzen dela gurasoen diru sarreraren eta haurren arteko lotura, eta, beraz, gizarteko sektorerik pobreenek zailtasun sozial eta ekonomiko larriak pairatzen dituztela. Arazo horien artean hauek aipa daitezke:

- Haurretan eta nerabeetan behar beste ez inbertituta, gizartearenganako iritzia txartzen zaie gazteei.
- Dutenen eta ez dutenen arteko arrakala handitzen da, eta era askotako arazoak sortzen dira (herritarren segurtasuna, osasun arazoak...). Eta arazo horiek gastu sozial eta ekonomiko larriak ekartzen dituzte (kartzela, osasun arloa, polizia...).

- Egiaztatuta dago bizitzako lehen urteetan inbertsio sozialak eginda gastu soziala murrizten dela bai denbora asko igaro gabe eta bai luzera begira. Ebidentziak daude etapa goiztiarretan egindako inbertsioak gizartera itzultzen direla onura gisa. Esaterako, etorkizuneko gastuak gutxitzen dira osasunean, eskoaz kanpoko heziketan, sistema judizialean eta espetxe sisteman. Hasierako inbertsioak handituz bezala, handiagoak dira inbertsio horiek etorkizunean ekartzen dituzten onurak.

Horregatik, ikuspegi ekonomiko batetik, martxan jarri behar da politiken paradigma berri bat, indar egingo duena haur eta nerabeen inbertsio sozialean. Komeni da lehengaien baliabideen banaketan izaten diren desorekei ekitea (alde zuzeneko banaketa), eta bizitzako lehen faseetan ekitea, zeren eta prebentzioari esker bazterketa arriskua saihestu baitaiteke (garaiz ekitea eraginkorragoa da gero zuzentzea baino).

4.2 **EGINKIZUN ETA PRINTZIBIO TRANSBERTSALAK**

Planaren eginkizuna:

Planaren eginkizuna da udal ekintza koordinatzea eta orientatzea, haur eta nerabeen eskubideak eta beren familienak beteko direla bermatzeko, nola eta udal ekintzak optimizatuta norabide jakin batean: haien bizi-kalitatearen hobekuntza, garapen ebolutibo egoki baten sustapena eta, eskubide osoko hiritar diren aldetik, gizarte partaidetza.

Printzipio gidari transbertsalak:

Haur eta nerabeentzako udal plana egiteko orduan, eta zehazki lerro estrategikoak eta ekintzak diseinatzeko orduan, oinarritzko premisa batetik abiatzen gara: oro har pertsonen eta bereziki haurren oinarritzko eskubideetatik. Horiek guztiak Giza Eskubideen Aldarrikapenean, Haurren Eskubideen Aldarrikapenean eta Nazio Batuetako Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenean jasota daude. Hurbilketa politiken bitartez landu behar dira lerro estrategikoak eta ekintza horiek, horrela hobetuko baita haien bizi kalitatea, sustatuko baita haien garapen ebolutibo egokia eta parte hartuko baitute gizartean eskubide osoko hiritar diren aldetik.

II. HANUP hau diseinatzeko orduan, honako printzipio gidari transbertsal hauek hartu dira aintzat:

- **Berdintasuna:** ikuspegi hori txertatu behar da, aitortuz gure gizarteko desorekan funtsezko garrantzia duela sexuak. Horra hor zergatik hartu behar diren aintzat sistematikoki neska-mutikoen egoera, baldintza, nahi eta premia askotarikoak.
- **Ekitatea:** kontuan izatea zein baldintzatan dauden haur eta nerabeak elementu jakin batzuk eskuratzeko eta kontrolatzeko, hau da, baliabideak, onurak, eskubideak eta aukerak.
- **Aniztasuna:** zenbait neurri txertatzea jakiteko eta analizatzeko ea giza eskubiderik urratzen den haur eta nerabeek izaten dituzten identitate ugarienez denaz bezainbatean (generoa, orientazio sexuala, etnia, klase soziala, kultura, dibertsitate funtzionala...).
- **Gizarteratzea:** Haur eta nerabeek gizarteratzeko duten eskubidea bermatzea funtsezko zeregina da bizi kalitatea hobetuko bada, eta eragin nabarmena du geroko kalitate pertsonal eta sozialaren garapenean.
- **Partaidetza:** Haur eta nerabeei beren iritzia eta partaidetza eskubideak bermatzea udal organoetan, nola eta partaidetza kolektiborako eskubidea eta entzunak izateko eskubidea erabilita euren dagozkien erabakietan.

- **Integrazio soziolinguistikoa:** Haur eta nerabeen eskubideak bermatzea Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialen gaitasun linguistiko normalizatuak izateko; garrantzi handikoa da alderdi hori gizarteratze integratzaile bat lortzeko.

Ikuspegi transbertsal orientagarriak

Printzipio gidari horiez gain, II. HANUPen lerroak eta helburuak diseinatu eta aukeratzeko prozesuan, kontuan izan dira ikuspegi transbertsal orientagarri hauek udalaren jardunbideetan:

- **Ardura publikoa:** erakunde publikoek oinarrizko eskubideak sustatu eta bermatzeko lan egin behar dute, eta lagundu egin behar dute familiak mantentzen bezala berdin elkarri laguntzeko eta babes informala emateko bestelako elkartasun sare batzuk babesten ere.
- **Garapen ebolutibora egokitzea:** Planeko programen xedea haurrak, nerabeak eta haien familiak badira ere, programa hauek egokitu egin behar dituzte beren ekintzak eta zerbitzuak pertsonaren etapa askotarikoetara.
- **Ardatza pertsonarengan ipintzen duen eredua:** irizpideak txertatzea helburu harturik udal programen eta zerbitzuen xede den jendearenganako arreta integrala, partaidetzakoa eta pertsonalizatua lortzea; kasu honetan, bereziki, haurrena, nerabeena eta haien familiaena.

4.3 II. HANUP-EN IRISMENA, GAUR EGUN HAURREKIN, NERABEEKIN ETA HAIEN FAMILIEKIN LOTURIK DIREN JARDUEREN MULTZOAZ DENAZ BEZAINBAT

II. HANUPen datozen ekintzei dagokienez, plan honek berriak direnak bakarrik hartzen ditu kontuan, edo gaur egun martxan direnak eta egokitzeko edo indartzeko asmoa dagoenak.

Edonola ere, ez zaie garrantzirik kenduko gaur egun martxan diren gainerako ekintzei, eta ez da albora utziko haien segimendua eta ebaluazioa. II. HANUPen asmoa da planean datozen ekintzen ebaluazio programa egitea ez ezik Udalak haurren arloan martxan duen gainerako ekintza multzoaren segimendua egitea.

"Haurren Adiskide den Hiria" ziurtagiria eskuratzeko bidean jarri denez, hura lortzeko, Jardueren Memoria izeneko agiria prestatu dugu, eta hor datoz aurreko urteetan gauzatutako ekintzak eta gaur egun mantendu asmo direnak. Hortaz, hura diseinatzeko orduan, pentsatuta dago nola egin segimendua HANUP indarrean den bitartean udalak garatuko duen ekintza multzoari.

Memoria horretan, haur eta nerabeen alorreko politiken harira udalak daramatzen jarduera guztiak datoz, baldin eta xede nagusia badute onura zuzenak ematea hurrei (0 urtetik 18ra bitartean). 250 bat ekintza edo programa identifikatu dira kolektibo horrekin zerikusia duten zerbitzu guztietan.

4.4 **NOLA ERATU DEN II. HANUP ETA MUGARRIRIK GARRANTZITSUENAK**

II. HANUP eratzeko orduan (2018-2022), prozesu parte hartzaile bat landu da, eta bertan, inplikaturik dauden eragile askotarikoek hartu dute parte, nola udal barrukoak hala kanpokoak, haur eta nerabeak barne. Bi fase nagusi izan ditu: Diagnostikoa eratzeko fasea (2017. urtearen zati handi bat hartu duena) eta II. HANUPen jarduera proposamenak (2017ko azarotik 2018ko apirilera).

1. fasea: Diagnostikoa eratzea

Azterketa hau eratzeko, eta ikuspegi metodologikotik, konbinatu egin dira metodologia kualitatiboak eta kuantitatiboak, hemen laburturik datorren teknika sail handi hau erabilia.

- DELPHI metodoa, haurren arloan aditu direnekin eginga (zortzi lagun). 2017ko martxotik apirilera, Delphi azterketa bat egin zen haurren arlo askotarikoetan aritzen diren adituekin.
- Gasteizko Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 4. mailakoen iritzi azterketa. Helburua izan da diagnostikoaren fase honetan Gasteizko haur eta nerabeen iritziak jasotzea hiriko lau ikastetxetan, nola eta on line inkesta bat eginez 1.034 ikasleko lagin bati.
- Eztabaida taldeak eta elkarrizketak hirugarren sektoreko entitateekin. Diagnostikoaren fase honi hiriko gizarte ehunaren ikuspegi bat txertatzeko helburuz, bi eztabaida talde antolatu ziren haur eta nerabeen arloan diharduten entitateek hartzen dituzten eremu nagusiei buruz: desgaitasuna eta behar bereziak; eta familia aniztasuna. Horrez gain, bi elkarrizketa erdi-egituratu egin ziren haurren eskubideak sustatzen lan egiten duten elkarteekin.
- Elkarrizketa sakonak udal teknikariek. Helburua izan da, batetik, I. HANUPeko erakutsi nagusiak jasotzea, diseinuaz, exekuzioaz eta eraginaz denaz bezainbat, eta, bestetik, Gasteizko gaur egungo haur eta nerabeei buruzko informazioa eta pertzepzioak jasotzea. Horretarako, martxoan, apirilean eta maiatzean, 25 elkarrizketa sakon egin ziren, zerbitzu eta sail askotariko 31 teknikariek; gehienak, udal administraziokoak.
- Eztabaida taldeak gurasoekin. Eztabaida talde bat egin zuten 2017ko apirilean, eta guztira sei gurasok parte hartu zuten.
- Lankidetzaren mintegia Logroño, Oviedo eta Tarragonako teknikariek. 2017ko apirilaren 7an, txostena idatzi dutenek lankidetzaren mintegi bat antolatu zuten udaletako haur eta nerabeen politikari buruzkoa; hizlari izan ziren hiru teknikari Logroño, Oviedo eta Tarragonako udaletakoak (Hiru hiriek dute Unicefen ziurtagiria "Haurren Adiskide diren Hiriak" ziurtagiria).

2. fasea: HANUP eratzeko dokumentua

II. HANUP egiteko orduan, funtsezko bi etapa egon dira. Lehenaren helburua zen azterketa diagnostikoaren emaitzak gizarteratzea, gero ekarpenak jasotzeko eta planaren ildo estrategikoak eta helburu nagusiak eratzeko. Bigarren zatian, horiek kontrastatu dira, eta ekintzak diseinatu eta aukeratu.

Hiru maila izan ditu partaidetza prozesuak: udalaren barne lanketa, haurren eta nerabeen parte hartzea eta hiriko gainerako kolektiboaren parte hartzea.

Orotara, 650 lagun inguruk parte hartu dute honako talde hauetan banatuta:

- Talde zuzendaria (sei lagun)
- Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Saileko Zuzendaritza Taldea (zortzi lagun)
- Sail arteko koordinaziorako teknikari organoa (30 lagun)
- Arloetako taldeak (11 lagun)
- Udal haurreskoletako hezitzaileen taldea (80 lagun)
- Talde politikoak eta teknikariak (hamahiru lagun)
- Elkarrekin eta entitateak (32 lagun)

- Erakunde askotako, Osakidetzako, Hezkuntzako eta EHuko ordezkari eta profesionalak (36 lagun)
- Haurrak eta nerabeak. Jardunaldiak haur eta nerabeekin. (181 lagun)
- Profesionalak eta herritarrak oro har. (250 lagun)

Udalari dagokionez, haren antolamendu egiturari, hori egon dira haur eta nerabeekin zerikusia duten zerbitzu guztiak. Plana eratzeko zereginen dinamizazioan eta gauzapenean, hori egon da Zuzendaritza Taldea, eta talde horren parte izan dira Haurtzaro eta Senitarte Zerbitzuko eta Unitate Teknikoko profesionalak Sailaren Zuzendaritzaren aginduetara.

Zeregin horiek gauzatzeko, halaber, hori egon da sail arteko koordinaziorako teknikari organoa. Talde horien lana izan da lerro estrategikoak kontrastatzea, esku hartze premia nagusiak hautatzea eta II. HANUPen txertatu beharreko ekintza proposamenak prestatzea.



Haur eta nerabeen partaidetzari dagokionez, hori izan dute Aktiba(tu), haur eta nerabeen parte hartze programa; programa horren bitartez, ikastetxeetan batzordeak eta foroak antolatuta, haur eta nerabeek gogoeta egin ahal izan dute diagnostikoaren emaitzei buruz (aurretik 1.034 inkestaren bidez parte hartua zuten), eta, epe berean Haur eta Nerabeen Elkargunea eratu zenez, lehen bileran, aipaturiko dinamiken emaitzak aurkeztu ziren.

Hala berean, Fase Diagnostikoan egindako inkestaren emaitzak itzuli ziren, txosten bat igorrita 25 ikastetxe partaideetara, eta, horrekin batera, jardunaldi bat antolatu zen programa landu duten ikastetxeetako 181 haur eta neraberekin, eta subjektu aktiboak izan ziren II. HANUPeko proposamenak egiteko orduan.

Partaidetza sozialean, bilerak eta lantaldeak egin dira eragile sozial askotarikoekin (Erakundeak, elkarteak, haurreskoletako hezitzaileak), Eskola Kontseiluarekin, Hiriko Gizarte Kontseiluarekin, eta jardunaldi publiko ireki bat egin da profesionalarekin eta herritarrekin oro har.

Honako koadro honetan datoz II. HANUP prestatzeko 2017ko azarotik 2018ko apirilera izan diren mugarri eta ekintzarik esanguratsuenak:

EKINTZA	EGUNA	DATU NABARMENAK
BILERA ALKATEAREKIN	Urriaren 30ean	Lanak martxan jartzeko akordioa
BILERA ZUZENDARIEKIN, ZINEGOTZIEKIN, ENPRESEKIN ETA ORGANISMO AUTONOMOEKIN	Azaroaren 17a	HAH ziurtagiriari buruzko informazioa eta II. HANUP eratzea Partaide izateko eskaria eta ordezkariak Zereginak eta epeak Irizpideak ematea, datuak eskatzea memorietarako, epeak
TALDE ZUZENDARIAREN ETA GIZARTE POLITIKEN SAILEKO ZUZENDARITZA TALDEAREN BILERA 12 LAGUN	Azaroaren 27a	Diagnostikoaren aurkezpena Kontraste lana. Eguneroko lanaren pertzepzioa azterketako datuak Lerroen gaineko lana Lanen egitasmoaren aurkezpena
HAURREN LAN SAIOA	Azaroaren 17a	Diagnostikoen gaineko lana Eskubideen Batzordeetan
BILERA, SAIL ARTEKO UDAL KOORDINAZIORAKO ORGANOAREKIN	Azaroaren 30a	Diagnostikoaren aurkezpena Kontraste kualitatiboa Organo honetan dira Gasteizko Udaleko zerbitzu askotarikoetako teknikariak. UNICEFen HAH zigilua eskuratzeko baldintza bat da organo hori aktibo egotea.
ESKOLA KONTSEILUA	Abenduaren 12a	Plana eratzeko informazioa eta parte hartzeko erak
BILERA, SAIL ARTEKO UDAL KOORDINAZIORAKO ORGANOAREKIN	2. SAIOA ABENDUAREN 20A	Proposamenen ekarpena Fitxak betetzeko eskaera
LANTALDEA HAURRESKOLETAKO HEZITZAILEEKIN	Abenduaren 28a	Diagnostikoaren aurkezpena, azpimarra berezia ipinita 0-3 urteko haurretan. Kontrastea eta proposamenak
HAURREN LAN SAIOA	Abenduaren 13a	Haur eta Nerabeen Elkargunea
TALDE POLITIKOAK	Urtarrilaren 11	Balorazioak jasotzearen diagnostikoa aurkeztea
ELKARTEAK ETA ENTITATEAK	Urtarrilaren 24a	Diagnostikoaren eta lerro estrategikoen aurkezpena Iradokizunak eta sinergiak jasotzea beste plan batzuetatik
LERROKAKO LANTALDEAK	Urtarrilaren 23a Urtarrilaren 24a Urtarrilaren 26a Otsailaren 8a	2. lerroa 3. lerroa 1. lerroa 4. lerroa
ERAKUNDEAK	Otsailaren 6a	Diagnostikoaren eta lerro estrategikoen aurkezpena Iradokizunak eta sinergiak jasotzea beste plan batzuetatik
GARAPEN IRAUNKORRAREN HELBURUEN TAILERRA	Otsailaren 15a	2030eko helburuei buruzko tailerra, eta nola aplikatu hiriko haur eta familien planean.
GIZARTE KONTSEILUA	Otsailaren 26a	Gizarte kontseilua
LERROKAKO LANTALDEEN bigarren erronda	Otsailaren 6a Otsailaren 7a Otsailaren 13a Otsailaren 15a	Talde bilerak arloka eta/edo zerbitzuka Bakoitzak lantzen dituen lerroetako helburuak lantzea
HAURREI ETA NERABEEI ITZULTZEKO JARDUNALDIA	Martxoaren 6a	Haur eta nerabeen jardunaldia Ikastetxe partaideei diagnostikoan datu globalak aurkeztea eta ikastetxe bakoitzeko datu ustiatuak ematea Partaidetza lana, ideiak eta ekarpenak II. planari

HERRITARRAK ORO HAR	Martxoa	Weba Saileko buletina
PROFESIONALEN ETA HERRITARREN JARDUNALDIA	Martxoaren 15a	Diagnostikoaren aurkezpena Haur inbertsioaren interbentzioa Haur jardunaldiko ordezkariak Partaidetza lana Arloetako adituak
ELKARRIZKETAK ZERBITZU BAKOITZEKO TEKNIKARIEKIN	Martxoaren 17-27	II. HANUPen jaso beharreko ekintzak eta konpromisoak diseinatzeko bilerak eta, ondoren, formulazioak kontrastatzea

4.5 **LERRO ESTRATEGIKOAK, HELBURU OROKORRAK ETA EKINTZAK:**

Egindako analisi diagnostikotik eta ondoko partaidetza kontrastetik bost erronka identifikatu dira II. HANUPek lerro estrategiko gisa hartzen dituenak. Eta lerro estrategiko bakoitzeko konpromisoak gehiago zehazteko, helburu orokorrak ezarri dira horietako bakoitzean, eta hor sartzan dira konpromisoak gauzatzeko ekintzak edo programak.

1. LERROA: Hurrei, nerabeei eta haien familiei begirako ekintzetan ekitatea indartzea.

1. lerroko helburu orokorrak:

- 1.1. Seme-alabak dituzten familiak laguntzea haurtzaroko desorekak gutxitzeko.
- 1.2. Familiako bizitza, bizitza pertsonala eta lana uztartzen laguntzea.
- 1.3. Aita-amen gurasotasun positiboa sustatzea seme-alaben hazkuntzan.
- 1.4. Ohitura osasungarriak sustatzea (aisia, kirola, jokoa, osasuna, elikadura, kontsumoa, kultura, irakaspn artistikoak).
- 1.5. Haurren eta nerabeen heziketa bultzatzea eskolarekin eta familiarekin elkarlanean.

2. LERROA: Haur eta nerabeen partaidetza bultzatzea herritar aktibo izan daitezen, eta hiriko bizimoduan haien eragin baikorra nabaritu dadin.

2. lerroko helburu orokorrak:

- 2.1. Haur eta nerabeen eskubideak eta betebeharrak sustatzea eta horien gaineko sentsibilizazioa egitea, herritartasun aktibo eta ardurazko bat sustatuta.
- 2.2. Haur eta nerabeen parte hartzea sustatzea arlo guztietan, haien alderdi onuragarriak agerrarazita.

3. LERROA: hirian sustatzea izaera inklusiboa, berdintasuna, segurtasuna eta iraunkortasuna haurrentzat eta nerabeentzat.

3. lerroko helburu orokorrak:

- 3.1. Hiri atseginago eta solidarioago baterantz egitea, bizikidetzan espazioen sortzaile eta hazkunde ekarle izango dena.
- 3.2. Hiria espazio seguru bat dela erakustea eta haur eta nerabeek hirian mugitzeko eta hartaz gozatzeko autonomia izan dezaten sustatzea.
- 3.3. Ohitura onak sustatzea, gure ondarearen eta ingurumenaren aldeko errespetua eta kontserbazioa sendotzeko.

4. LERROA: Erresilientzia eta ahalduntze eredia sustatzea haurrak eta nerabeak zaugarri eta babesik gabe diren egoeretan

4. lerroko helburu orokorrak:

- 4.1. Haurtzaroan eta nerabezaroan direnek jasan ditzaketen tratu txarrak eta babesgabatasuna goiz detektatzearen alde egitea eta gizarteko eragile eta herritar guztien inplikazioa bilatzea.
- 4.2. Familien bigarren mailako prebentziorako, haiei laguntzeko eta zaintzeko programak indartzea, horien indarguneak sustatuta.
- 4.3. Haur, nerabe eta gazteei babesgabatasunaren ondorioak gainditzen lagunduko dieten programak eta baliabideak garatzea.

5. LERROA: Gasteizko Udalaren jardunbidea hobetzea haurren, nerabeen eta familien arloan.

5. Ierroko helburu orokorrak:

- 5.1. Haur eta nerabeen egoera ezagutzea eta analizatzea.
- 5.2. Transbertsaltasunerantz egitea, eta sailen arteko eta erakundeen arteko antolamendua bultzatzea.
- 5.3. Haurretan eta nerabeetan aplikatutako programak ebaluatzea eta hobetzea ebidentziaren paradigmatik.
- 5.4. Giza baliabideak gehiago egokitzea dauden premietara, hala nola horien antolamendua, prestakuntza, gaitasuna eta kudeaketa hobetuta.
- 5.5. Udalak hurrekin eta nerabeekin lantzen dituen ekimenak hedatzea.

4.6 **EKINTZA PROPOSAMENAK LERROAREN ETA HELBURU OROKORRAREN ARABERA**

1. LERROA. HAURREI, NERABEEI ETA HAIEN FAMILIEI BEGIRAKO EKINTZETAN EKITATEA INDARTZEA

Lerro estrategiko hau saiatzen da adingabeen eta haien familien desoreka soziala indartzen duten egoerei ekiten, nola eta estrategia ekitatiboak indartuta udalaren jardunbideetan. Horretarako, lehentasunezko helburu bat da familien babesa indartzea haien gizarteratze funtzioa eta gaitasuna indartzeko. Horregatik, helburu estrategiko gisa jartzen dira kontziliazioaren alde egitea eta gurasotasun positiboa sustatzea.

Horren osagarri eta haur eta nerabe guztien garapen osoa bermatzeko helburuz, lehentasunzat hartzen da norbait jaiotzen denetik garapen pertsonalerako eta sozialerako besteen ahalmen bera izatea udalak jartzen dituen tresnak eta programak eskuratzeko orduan.

Garapen pertsonal horretan, oinarritzko eremu bat da hezkuntza prozesua. Lerro honetan, horregatik datoz zenbait proposamen hezkuntzaren munduko erakundeen zeregina indartzeko familien eta komunitatearen arloan.

- | |
|--|
| 1.1. SEME-ALABAK DITUZTEN FAMILIAK LAGUNTZEA HAURTZAROKO DESOREKAK GUTXITZEKO. |
| 1.2. FAMILIAKO BIZITZA, BIZITZA PERTSONALA ETA LANA UZTARTZEN LAGUNTZEA. |
| 1.3. AITA-AMEN GURASOTASUN POSITIBOA SUSTATZEA SEME-ALABEN HAZKUNTZAN. |
| 1.4. OHITURA OSASUNGARRIAK SUSTATZEA
(AISIA, KIROLA, JOKOA, OSASUNA, ELIKADURA, KONTSUMOA, KULTURA, IRAKASPEN ARTISTIKOAK). |
| 1.5. HAURREN ETA NERABEEN HEZIKETA BULTZATZEA ESKOLAREKIN ETA FAMILIAREKIN ELKARLANEAN. |

Oharra: Ekintza garatzeko eta koordinatzeko ardura duen zerbitzua hizki lodiz ageri da

1.1. SEME-ALABAK DITUZTEN FAMILIAK LAGUNTZEA HAURTZAROKO DESOREKAK GUTXITZEKO.			
1.1.01	Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Sailaren bitartez udalak 2018an emango dituen laguntza ekonomikoen programa garatu, hobetu eta zabaltzea, kontuan hartuz seme-alabak dituzten familien ikuspegia.	Aldia	Segidakoa (2018, 2019, 2020, 2021,2022)
		Aurrekontua	GLL 2.167.898,5€ Laguntza Ekonomikoen Programa 2.057.108,3€
		Arduraduna	Komunitate Jardueraren Zerbitzua
1.1.02	Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari eskatzea molda ditzatela diru sarrerak bermatzeko errentaren baremoak edo irizpideak, eta kontuan hartzea seme-alabak dituzten familiak.	Aldia	2018
		Aurrekontua	Ez dakar gasturik
		Arduraduna	Gizarte Politikak eta Osasun Publikoa
1.1.03	Sail arteko batzorde tekniko bat eratzea, zertarako eta zerbitzu askotarikoetatik antolatzen diren udal jardueren gaineko tasak, prezioak eta hobariak nolako irizpideekin erabiltzen diren analizatzeko eta koordinatzeko eta, hala, ekitatea bultzatzeko hurrek, nerabeek eta haien familiak horiek eskuratzeko orduan.	Aldia	2020
		Aurrekontua	Ez dakar gasturik
		Arduraduna	Gizarte Etxeen Zerbitzua , Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Saila, Kirol Zerbitzua, Kultura Zerbitzua, Gazteria Zerbitzua, Hezkuntza Zerbitzua
1.1.04	Irizpideak berrikustea zailtasun soziala eta zaugarritasuna pairatzen duten haur eta nerabeek eskura izan ditzaten udaleko zerbitzuen jarduerak (opor aisia, hurrekolak...)	Aldia	2019
		Aurrekontua	Ez dakar gasturik
		Arduraduna	Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Saila , Hezkuntza Zerbitzua, Gizarte Etxeen Zerbitzua, Kultura Zerbitzua, Gazteria Zerbitzua
1.1.05	2-3 urteko haurren doakotasuna ikasturtean zehar Udalaren Haurreskoletan sartzeko, eskola sistemarekin duen antzekotasunagatik.	Aldia	Segidakoa
		Aurrekontua	Ez dakar gasturik
		Arduraduna	Hezkuntza Zerbitzua
1.1.06	Aldundiari eskatzea oporretako aisiarako dauden plazak sortzeko edo zabaltzeko, norentzat eta zailtasun sozialetan edo zaugarritasunean diren familien haur eta nerabeentzat	Aldia	2019
		Aurrekontua	Ez dakar gasturik
		Arduraduna	Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Saila

1.2. FAMILIAKO BIZITZA, BIZITZA PERTSONALA ETA LANA UZTARTZEN LAGUNTZEA			
1.2.01	Sail arteko mahai bat sortzea, zertarako eta kontziliazioaren aldetik nola hobetu gogoeta egiteko haurrak dituzten familiei ematen zaizkien zerbitzuen inguruan	Aldia	2019
		Aurrekontua	Ez dakar gasturik
		Arduraduna	Hautzaro eta Senitarte Zerbitzua, Hezkuntza Zerbitzua, Gizarte Politiken Saila, Kultura Zerbitzua, Gizarte Etxeen Zerbitzua, Gazteria Zerbitzua, Berdintasunerako Zerbitzua, Bizikidetzeta eta Aniztasun Zerbitzua
1.2.02	Seme-alaba adingabeak zaintzeko zerbitzura bideratzen den diru saila handitzea, guraso bakarreko familien prestakuntza jarduerak eta/edo lanekoak garatzeko	Aldia	2018
		Aurrekontua	Diru saila 20.000 eurotan handitzea, eta 60.000 eurotan gelditzea
		Arduraduna	Komunitate Jardueraren Zerbitzua
1.2.03	Enpresaburuen eta merkatarien elkarteetan kontziliazio erantzukidea zer den hedatzea eta haren inguruan sentzibilizatzea, horren alde egiteko dauden era berriak erakutsita eta dauden baliaabideak kanalizatuta; esaterako, "Concilia+" orria.	Aldia	2018, 2019, 2020, 2021, 2022
		Aurrekontua	Ez dakar gasturik
		Arduraduna	Enpleguaren eta Sustapen Ekonomikoaren Saila
1.2.04	Udalaren Laguntzen Programan familiako bizitza eta lana uztartzeko laguntza badela ikusaraztea	Aldia	2019
		Aurrekontua	Ez dakar gasturik
		Arduraduna	Komunitate Jardueraren Zerbitzua
1.2.05	Diru laguntza lerro bat ipintzea ikastetxeetan kontziliazio espazioak bultzatzeko	Aldia	2020, 2021, 2022
		Aurrekontua	Zehaztu gabe
		Arduraduna	Hezkuntza Zerbitzua
1.2.06	Udaletxean ezkontzen diren bikote guztiei ematea "Aitatasun positibo, erantzunkide, kontziente eta aktiboaren aldeko sentipen eta konpromiso adierazpena"	Aldia	2019, 2020, 2021, 2022
		Aurrekontua	1.000 euro urtean
		Arduraduna	Protokolo eta Erakunde Komunikaziorako Zerbitzua, Hautzaro eta Senitarte Zerbitzua
1.2.07	Erantzukidetasunaren eta aitatasun arduratsuaren gaineko programak bultzatzea Udal Haurreskoletan eta Haurreskolak Partzuergoan, zertarako eta gizonak hazkuntzan eta hezkuntzan inplikatuzteko	Aldia	Segidakoa
		Aurrekontua	7.000 euro urtean
		Arduraduna	Hezkuntza Zerbitzua

1.3. UDALAREN GURASOTASUN POISITBOAREN PROGRAMA APLIKATZEA, GURASOAK SEME-ALABEN HAZKUNTZAN INPLIKARAZTEKO (Helburu honetan datoz Gurasotasun Positiboaren Programako epigrafeak, zeinetan zerbitzu bakoitzaren ekintza espezifikoak jasotzen baitira, eta 2018an onartuko dute)			
1.3.01	Profesionalentzako prestakuntza ekintzak zabaltzea Gurasotasun Positiboaren aldetik	Aldia	Segidakoa
		Aurrekontua	2018: 8.000 € 2019: 10.000 € 2020: 10.000 € 2021: 10.000 € 2022: 10.000 €
		Arduraduna	Hautzaro eta Senitarte Zerbitzua, Gizarte Inklusiorako Zerbitzua , Hezkuntza Zerbitzua, Komunitate Jardueraren Zerbitzua, Gizarte Etxeak eta Osasun Zerbitzu Publikoa
1.3.02	Udalak arlo horretan daramatzen ekintzen ikerkuntza, ebaluazio eta berrikuntza ekintzen garapena, Gurasotasun Positibo Optimoaren Curriculum irizpideetan oinarrituta	Aldia	Segidakoa
		Aurrekontua	2018: 30.000 € 2019: 60.000 € 2020: 60.000 € 2021: 60.000 € 2022: 60.000 €
		Arduraduna	Hautzaro eta Senitarte Zerbitzua , Komunitate Jardueraren Zerbitzua, Gizarte Inklusiorako Zerbitzua, Hezkuntza Zerbitzua, Gizarte Etxeen Zerbitzua
1.3.03	Hirian ekintzak lantzea gurasotasun positiboa sustatzeko	Aldia	Segidakoa
		Aurrekontua	Zehaztu gabe
		Arduraduna	Hautzaro eta Senitarte Zerbitzua , IGI, Gizarte Etxeen Zerbitzua, Kirol Zerbitzua, Kultura Zerbitzua, Hezkuntza Zerbitzua, Komunitate Jardueraren Zerbitzua, Gizarte Inklusiboaren Zerbitzua
1.3.04	Gurasotasun positiboaren prestakuntza eta sustapen ekintzak indartzea aitentzat, amentzat eta zaintzaileentzat, lehen, bigarren eta hirugarren mailako prebentzioaren ikuspegitik	Aldia	2019, 2020, 2021, 2022
		Aurrekontua	2018 112.000 euro 2019: 112.000 € 2020: 117.000 € 2021: 126.000 € 2022: 135.000 €
		Arduraduna	Hautzaro eta Senitarte Zerbitzua , Hezkuntza Zerbitzua, Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Saila
1.3.05	Kanpaina espezifikoak sortzea eta materialak prestatzea eta hedatzea, herritarrak sentsibilizatzeko gurasotasun positiboaren funtsezko alderdiei buruz	Aldia	2019, 2020, 2021, 2022
		Aurrekontua	2019: 15.000 € 2020: 15.000 € 2021: 15.000 € 2022: 15.000 €
		Arduraduna	Hautzaro eta Senitarte Zerbitzua

1.4. OHITURA OSASUNGARRIAK SUSTATZEA (AISIA, KIROLA, JOKOA, OSASUNA, ELIKADURA, KONTSUMOA, KULTURA, IRAKASPEN ARTISTIKOAK)			
1.4.01	Aisia eta denbora librearen eskaintza eta eskaria aztertzea ekitatearen eta dibertsitate funtzionala dutenen integrazioaren ikuspegitik	Aldia	2018, 2019
		Aurrekontua	Ez dakar gasturik
		Arduraduna	Gizarte Etxeen Zerbitzua, Hezkuntza, Gazteria
1.4.02	Osasunaren eta elikaduraren promozio programak hobetzea eskolaren arloan, eta familien parte hartzea indartuta eta programak premia berrietara egokituta	Aldia	Segidakoa
		Aurrekontua	Ez dakar gasturik
		Arduraduna	Osasun Publikoaren Zerbitzua
1.4.03	Aholkularitza Psikologikoaren zerbitzua eta Asexoria sexualitatearen inguruko aholkularitza gehiago hedatzea ikastetxeetan	Aldia	Segidakoa
		Aurrekontua	3.000 euro urtean
		Arduraduna	Gazteria Zerbitzua
1.4.04	Kiroldegietan gune batzuk ipintzea familiek jarduera ludiko-fisikoak era librean praktika ditzaten: patinatzea, kirol kids proiektua...	Aldia	Segidakoa
		Aurrekontua	Zehaztu gabe
		Arduraduna	Kirol Zerbitzua
1.4.05	Haur eta nerabeentzako Emozioen Lantegiak programa zabaltzea, erlaxazio, meditazio eta mindfulness tailerrak sartuta	Aldia	2019, 2020, 2021, 2022
		Aurrekontua	14.000 eurotara zabaldu lehen urtean eta 24.000 eurotara ondoko urteetan (2018: 186.088 €). 2019: 200.000 € 2020: 210.000 € 2021: 210.000 € 2022: 210.000 €
		Arduraduna	Haurtzaro eta Senitarte Zerbitzua
1.4.06	Komunitatean dagoen programazioa berrikustea eta hobetzea, hurrek, nerabeek eta haien familiek dituzten premia berrietara	Aldia	2018, 2019
		Aurrekontua	Ez dakar gasturik
		Arduraduna	Komunitate Jardueraren Zerbitzua , Haurtzaro eta Senitarte Zerbitzua, Gizarte Inklusiboaren Zerbitzua
1.4.07	Eusko Jaurlaritzari eskatzea eta elkarrekin koordinatzea KZ Guneak programak presta ditzan gurasoentzat, sare sozialak eta teknologia berriak erabiltzen erakusteko.	Aldia	2019
		Aurrekontua	Ez dakar gasturik
		Arduraduna	Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Saila

1.5. HAURREN ETA NERABEEN HEZIKETA BULTZATZEA ESKOLAREKIN ETA FAMILIAREKIN ELKARLANEAN			
1.5.01	Lan lerroak diseinatu eta sustatu gizarte etxeetan, zaugarritasun maila handia dutenentzat	Aldia	2019, 2020, 2021, 2022
		Aurrekontua	90.000 euro urtean
		Arduraduna	Hezkuntza Zerbitzua
1.5.02	Hiri Hezitzaileen bitartez udalak egiten duen eskaintzaz gogoeta egitea eta zentroetan detektatutako premietara bideratzea	Aldia	2018, 2019
		Aurrekontua	Ez dakar gasturik
		Arduraduna	Hezkuntza Zerbitzua
1.5.03	Sexu eta genero aniztasunaren arloan lehentasunezko jarduerak dakartzan agendako ekintzak martxan jartzea, haur eta nerabeekin zerikusia dutenak, LGTBI biztanleriaren errealitateari buruzko diagnostikoaren emaitzetatik abiatuta.	Aldia	Segidakoa
		Aurrekontua	Zehaztu gabe
		Arduraduna	Berdintasunerako Zerbitzua
1.5.04	Informazio eta sentsibilizazio kanpaina 0-3 urteko haurren eskolatzeari buruz.	Aldia	Segidakoa
		Aurrekontua	Zehaztu gabe
		Arduraduna	Hezkuntza Zerbitzua

2. LERROA. HAUR ETA NERABEEN PARTAIDETZA BULTZATZEA HERRITAR AKTIBO IZAN DAITEZEN, ETA HIRIKO BIZIMODUAN HAIEN ERAGIN BAIKORRA NABARITU DADIN

Lerro estrategiko honen abiapuntuan, Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena dago; bertan baitio hurrek baldintza egokiak behar dituztela iritzi propioa formatzeko eta era librean adierazteko, berari dagozkion egoeretan, eta betiere adinaren eta heldutasunaren arabera haien iritzia kontuan hartzeko. Lerro estrategiko horri ekiteko, helburua da sentibilizazio eta promozio ekimenak indartzea, haur eta nerabeen eskubideez eta betebeharez diharduten kasuetan.

Beste helburu orokor bat da, kontzientzia hartzetik kanpo, herritar aktiboek hori martxan jartzeko duten eraginkortasuna bermatzea. Horretarako, batetik, asmoa da haurren eta nerabeen ahotsa integratzea partaidetza prozesuetan eta komunitatekoetan, nola eta belaunaldien ikuspegia txertatuta. Eta, bestetik, haurren, zenbait arlotan nerabeen eta haien familien partaidetza sustatzeko ekintzak datoz: familiaren arloan, hezkuntzarenean eta udalarenean.

Hala berean, osagarri gisa, zenbait ekintza datoz haurren eta nerabeen irudi baikorra sustatzeko, nola eta jarduerak eginez eta modu objektiboan erakutsiz haur eta nerabeek ekarpen sozialak egiten dituztela aukerak eskaintzen zaizkienean.

2.1. HAUR ETA NERABEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK SUSTATZEA ETA HORIEN GAINEKO SENTSIBILIZAZIOA EGITEA, HERRITARTASUN AKTIBO ETA ARDURAZKO BAT SUSTATUTA

2.2. HAUR ETA NERABEEN PARTE HARTZEA SUSTATZEA ARLO GUZTIETAN, HAIEN ALDERDI ONURAGARRIAK AGERRARAZITA

2.1. HAUR ETA NERABEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK SUSTATZEA ETA HORIEN GAINEKO SENTSIBILIZAZIOA EGITEA, HERRITARTASUN AKTIBO ETA ARDURAZKO BAT SUSTATUTA			
2.1.0.1	Haurren eta nerabeen ikuspegia txertatzea, non eta aniztasunean oinarritutako bizikidetzarako sentsibilizazio-programetan	Aldia	Segidakoa
		Aurrekontua	Ez dakar gasturik
		Arduraduna	Bizikidetzara Zerbitzua
2.1.02	Haur eta nerabeen ikuspegia txertatzea Herritartasunerako Eskola Irekian (HEI)	Aldia	Segidakoa
		Aurrekontua	Ez dakar gasturik
		Arduraduna	Parte-hartzerako Zerbitzua
2.1.03	Zonaldeko Taldeak bultzatzen duen haur eta gazteentzako programazioa sustatzea, eta komunitateko programazioan jarduerak sustatzea, haur eta nerabeen eskubideei buruzko sentsibilizazioa lantzen duten kasuetan.	Aldia	Segidakoa
		Aurrekontua	Ez dakar gasturik
		Arduraduna	Kultura Zerbitzua, Komunitate Jardueraren Zerbitzua
2.1.04	Haur eta nerabeen eskubideak ospatzeko eta zabaltzeko jarduerak handitzea	Aldia	Segidakoa
		Aurrekontua	Txertatuta dago Aktibatu programaren aurrekontuan
		Arduraduna	Hurtzaro eta Senitarte Zerbitzua
2.1.05	Berdintasunerako eta Ahalduntzerako Eskola Txikia diseinatzea eta martxan jartzea, Berdintasunerako eta Ahalduntzerako Eskolaren esparruko lerro estrategiko gisa	Aldia	2018, 2019
		Aurrekontua	12.000 €
		Arduraduna	Berdintasunerako Zerbitzua
2.1.06	Haur eta Nerabeen Elkargunean sortzen diren interes partekatuko gaiak koordinatzea dagozkien Elkarguneekin eta Auzoguneekin.	Aldia	Segidakoa
		Aurrekontua	Ez dakar gasturik
		Arduraduna	Hurtzaro eta Senitarte Zerbitzua
2.1.07	Bultzada bat ematea, sailetan sortzen diren komunitate proiektuetan belaunaldien osagaia integratzeko beren ekintzetan; horrela, enpatia eta herritarren ardurarena sustatuko dira	Aldia	Segidakoa
		Aurrekontua	Ez dakar gasturik
		Arduraduna	Parte-hartzerako Zerbitzua

2.2. HAUR ETA NERABEEN PARTE HARTZEA SUSTATZEA ARLO GUZTIETAN, HAIEN ALDERDI ONURAGARRIAK AGERRARAZITA			
2.2.01	Baliabideak diseinatzea eta martxan jartzea, zertarako eta familien antolamendua, ahalduntzea eta jarduera sustatzeko hezkuntza komunitatean	Aldia	Segidakoa
		Aurrekontua	Zehaztu gabe
		Arduraduna	Hezkuntza Zerbitzua
2.2.02	HEI Herritartasunerako Eskola Irekiaren ekintza eta Aktibatu haur eta nerabeen partaidetzarako programa koordinatzea, eta programa hori indartzea	Aldia	Segidakoa
		Aurrekontua	Ez dakar gasturik
		Arduraduna	Parte-hartzerako Zerbitzua
2.2.03	Haur eta nerabeen partaidetza indartzea eta kanalizatzea, non eta Udalak tarteka martxan jartzen dituen partaidetza prozesuetan eta espazioetan	Aldia	Segidakoa
		Aurrekontua	Ez dakar gasturik
		Arduraduna	Parte-hartzerako Zerbitzua
2.2.04	Baliabideak ipintzea, haur eta nerabeen iritzia entzuna izateko eskubidea aplikatzeko eurei dagozkien udaleko prozeduretan, gizarte zerbitzuetan	Aldia	2019, 2020, 2021, 2022
		Aurrekontua	5.000 euro urtean
		Arduraduna	Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Saila
2.2.05	Foroak ugaritzea Haur eta Nerabeen Elkargunearen partaidetza handitzeko	Aldia	2020, 2021
		Aurrekontua	15.000 eurotan handitzea 2020rako (2018: 100.000 €) 2020: 115.000 € 2021: 130.000 € 2022: 135.000
		Arduraduna	Hautzaro eta Senitarte Zerbitzua
2.2.06	Aktibatu programa bultzatzea eta zabaltzea, familiak eta irakasleak sentibilizatuta haurren eta nerabeen partaidetza sustatzeari buruz	Aldia	2021, 2022
		Aurrekontua	2021: 10.000 € 2022: 10.000 €
		Arduraduna	Hautzaro eta Senitarte Zerbitzua
2.2.07	Komunikabideekin lankidetzaren prozesuak sortzea, haur eta nerabeen irudi baikorra sustatzeko, nola eta EHUK egin duen azterketaren berri zabaldua: "Haurren gaineko informazioa komunikabideetan lantzeko jardunbide onen gomendioak"	Aldia	2019, 2020
		Aurrekontua	2019: 2.500 € 2020: 2.500 €
		Arduraduna	Hautzaro eta Senitarte Zerbitzua Parte-hartzerako Zerbitzua
2.2.08	Haurrei eta haien familiei buruzko seinaleetako eta karteletako edukia, hizkuntza eta irudiak berrikustea hiriko garraio publikoko zerbitzuetan	Aldia	2018, 2019
		Aurrekontua	Ez dakar gasturik
		Arduraduna	TUVISA, Hautzaro eta Senitarte Zerbitzua
2.2.09	Haurrek eta nerabeek parte hartzen duten programetan eta jardueretan emaitzak ikusaraztea komunitatera hurbiltzeko eta irudi baikorra emateko	Aldia	Segidakoa
		Aurrekontua	Ez dakar gasturik
		Arduraduna	Komunitate Jardueraren Zerbitzua , Hautzaro eta Senitarte Zerbitzua, Gizarte Inklusiboaren Zerbitzua

3. LERROA. HIRIAN SUSTATZEA IZAERA INKLUSIBOA, BERDINTASUNA, SEGURTASUNA ETA IRAUNKORTASUNA HAURENTZAT ETA NERABEENTZAT

Lerro estrategiko honen bitartez, asmoa da zenbait jarduera martxan jartzea hiria egokitzeko haur eta nerabeen beharretara.

Hiria atseginagoa eta solidarioagoa izan dadin, beharrezkoa da bizikidetzaren eta hazkuntza espazioak sortzea; horretarako pentsatu dira zenbait neurri, haurrek eta nerabeek beren proiektuak sortzeko eta hiriaren eta bertako ekipamenduen diseinuan haien premia espezifikoaren ikuspegia txertatzeko garapen pertsonalaren etapa askotarikoetan.

Beste alderdi estrategiko bat zera da, segurtasun faltaren arazoari ekitea; kontua da hiria sendotzea espazio seguruagoa izan dadin haurrentzat eta nerabeentzat. Hiri seguruagoa eraikitzeke eta mugikortasunean autonomia emateko eta hiriaz gozatzeko, ez da nahikoa azpiegitura egokiak izatea; horrez gain, gizarte osoaren inplikazioa eskatzen du, gazteenek senti dezaten espazio publikoan lagunduak daudela.

Lerro estrategiko horren barnean dator, hala berean, ondarearen errespetua erakustea eta ingurumena zaintzea. Helburu horiek indartzeko, haurren, nerabeen eta haien familien partaidetza eta ikuspegia gehiago txertatuko da, non eta ingurumen-eragina gutxitzeko sentsibilizazio eta kontzientziario programetan.

3.1. HIRI ATSEGINAGO ETA SOLIDARIOAGO BATERANTZ EGITEA, BIZIKIDETZA ESPAZIOAREN SORTZAILE ETA HAZKUNDE EKARLE IZANGO DENA.

3.2. HIRIA ESPAZIO SEGURU BAT DELA ERAKUSTEA ETA HAUR ETA NERABEEK HIRIAN MUGITZEKO ETA HARTAZ GOZATZEKO AUTONOMIA IZAN DEZATEN SUSTATZEA

3.3. OHITURA ONAK SUSTATZEA, GURE ONDAREAREN ETA INGURUMENAREN ALDEKO ERRESPETUA ETA KONTSERBATZIOA SENDOTZEKO.

3.1. HIRI ATSEGINAGO ETA SOLIDARIOAGO BAT SORTZEA, BIZIKIDETZA ESPAZIOAREN ERATZAILE ETA HAZKUNDE EKARLE IZANGO DENA			
3.1.01	Espazio publiko hautatuetako proiektuak gauzatzea, prozesu parte hartzaileetatik sortzen direnean, hala nola Gasteiz Hobetuz (Parkour Eremua, Kirol askotarikoak Lakuabizkarrean...)	Aldia	Segidakoa
		Aurrekontua	Zehaztu gabe
		Arduraduna	Espazio Publikoaren eta Ingurunearen Zerbitzua
3.1.02	Haurren eta nerabeen eta haien garapen etapan ikuspegia txertatzea espazio publikoaren eta hiriaren diseinuan	Aldia	Segidakoa
		Aurrekontua	Ez dakar gasturik
		Arduraduna	Espazio Publikoaren eta Ingurunearen Zerbitzua
3.1.03	Haurren eta gazteen espazioak pixkanaka egokitzea dibertsitate funtzionala duten haur eta nerabeen beharretara	Aldia	Segidakoa
		Aurrekontua	Zehaztu gabe
		Arduraduna	Espazio Publikoaren eta Ingurunearen Zerbitzua
3.1.04	Berdeguneen, espazio libreen eta herrietako ekipamenduen gaineko ordenantzak berrikusteko bultzada ematea, zertarako eta belaunaldien bizikidetza espazio multifuntzional egokiak indartzeko haien landa identitateen ezaugarrietara	Aldia	2018, 2019
		Aurrekontua	Ez dakar gasturik
		Arduraduna	Nekazaritza Eremuaren Zerbitzua
3.1.05	Sail arteko lantaldea sortzea, nerabeentzako ekipamendu-espazioetan dauden beharretarako	Aldia	2018, 2019
		Aurrekontua	Ez dakar gasturik
		Arduraduna	Gazteria Zerbitzua. Parte-hartzerako Zerbitzua, Haurtzaro eta Senitarte Zerbitzua
3.1.06	Haur-gazteentzako espazio berriak edo kirol pistak sortzea landagunean	Aldia	2018
		Aurrekontua	2018: 99.284 €
		Arduraduna	Nekazaritza Eremuaren Zerbitzua
3.1.07	Gasteizko familia turismoa sustatzeko programak garatzea	Aldia	Segidakoa
		Aurrekontua	
		Arduraduna	Enleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saila

3.2. HIRIA ESPAZIO SEGURU BAT DELA ERAKUSTEA ETA HAUR ETA NERABEEK HIRIAN MUGITZEKO ETA HARTAZ GOZATZEKO AUTONOMIA IZAN DEZATEN SUSTATZEA			
3.2.01	Komunitatea indartuko duten ekintzak eta programak gauzatzea, horrela indartuko baita haur eta nerabeen autonomia eta segurtasuna hiria erabili eta gozatzeko orduan (zonako taldeen bitartez)	Aldia	Segidakoa
		Aurrekontua	Zehaztu gabe
		Arduraduna	Gizarte Etxeen Zerbitzua
3.2.02	Bidegorrien proiektuak gauzatzea, kontuan izanik haur eta nerabeen premiak eta ezaugarriak	Aldia	Segidakoa
		Aurrekontua	Zehaztu gabe
		Arduraduna	Espazio Publikoaren eta Ingurunearen Zerbitzua
3.2.03	Autobusetan hiru espaziotara igotzea haur txikien/gurpil aukietan dabiltzanentzat gordetzen diren tokiak, erosten diren autobus urbano berrietan	Aldia	Segidakoa
		Aurrekontua	Ez dakar gasturik
		Arduraduna	TUVISA

3.3. OHITURA ONAK SUSTATZEA, GURE ONDAREAREN ETA INGURUMENAREN ALDEKO ERRESPECTUA ETA KONTSERBATZIOA SENDOTZEKO			
3.3.01	Haurren eta nerabeen ikuspegia txertatzea hiriak ingurumenean duen eragina gutxitzeko sentsibilizazio programetan	Aldia	Segidakoa
		Aurrekontua	Ez dakar gasturik
		Arduraduna	Plangintza eta Ingurumen Kudeaketaren Zerbitzua
3.3.02	Nerabeek parte hartzea Gasteizko Parte Zaharrean gaeko aisialdia arduraz egiteko Sentsibilizazio eta Kontzientziatorako Ekintza Planean	Aldia	2018, 2019
		Aurrekontua	Ez dakar gasturik
		Arduraduna	Plangintza eta Ingurumen Kudeaketaren Zerbitzua
3.3.03	50-50 Proiektua sustatzea eta zabaltzea, ikastetxeetan energia aurrezpena eta efizientzia lantzeko	Aldia	2018, 2019
		Aurrekontua	12.000 euro urtean
		Arduraduna	IGI
3.3.04	Gasteiz Elikagaien Estrategia zabaltzea eta mantentzea; familia tailerrak, eskolako jantokietan hobekuntzak egiteko	Aldia	Segidakoa
		Aurrekontua	11.000 euro urtean
		Arduraduna	IGI

4. LERROA. ERRESILIENTZIA ETA AHALDUNTZE EREDUA SUSTATZEA HAURRAK ETA NERABEAK ZAURGARRI ETA BABESIK GABE DIREN EGOERETAN

Lerro estrategiko honetatik pauso berriak ematea proposatzen dugu udalaren jarduerak hobetzeko eta era efikazagoan aurre egiteko haurren, nerabeen eta haien familien babesgabetasun eta zaurgarritasun egoerei, udalaren eskumena den aldetik. Horrek esan nahi du esku hartzen prozedurak eta baliabideak hobetu behar direla

II. HANUP honen erronka nagusietako bat da detekzio goiztiarra indartzea haur eta nerabeen zaurgarritasun eta babesgabetasun egoeretan. Alde horretatik, asmoa da gizarte eragileen kolaborazioa eta gaitasuna hobetzea helburu horretarako. Helburu estrategiko honetan, halaber, lerro bat prestatzeko asmoa dago, zertarako eta sail arteko prozedurak eta erakunde arteko protokoloak hobetzeko hiru arlotan: kasuen esku hartzea, bideratzea eta jarraipena.

Lerro estrategiko honetan, badago beste helburu bat, egoera horiek sufritzen dituzten familien rola eta gaitasuna indartzea, horren bueltako gorabeherari ekiteko; horretarako, erakundeen babesa eta programa egokiak behar dituzte.

Lerro estrategiko honetan sartzen da, era berean, babesgabetasunerako programak hobetzearena eta hortik eratortzen diren egoerei aurre egiteko gaitasuna handitzea. Eta, era berean, haur, nerabe eta gazteei babesgabetasunaren ondorioak gainditzeko lagunduko dieten programak eta baliabideak garatzea da asmoa.

- | |
|--|
| 4.1. HAURTZAROAN ETA NERABEZAROAN DIRENEK JASAN DITZAKETEN TRATU TXARRAK ETA BABESGABETASUNA GOIZ DETEKTATZEAREN ALDE EGITEA ETA GIZARTEKO ERAGILE ETA HERRITAR GUZTIEN INPLIKAZIOA BILATZEA |
| 4.2. FAMILIEN BIGARREN MAILAKO PREBENTZIOARAKO, HAIEI LAGUNTZEKO ETA ZAINTZEKO PROGRAMAK INDARTZEA, HORIEN INDARGUNEAN SUSTATUTA |
| 4.3. HAUR, NERABE ETA GAZTEEI BABESGABETASUNAREN ONDORIOAK GAINDITZEN LAGUNDUKO DIETEN PROGRAMAK ETA BALIABIDAK GARATZEA. |

4.1. HAURTZAROAN ETA NERABEZAROAN DIRENEK JASAN DITZAKETEN TRATU TXARRAK ETA BABESGABETASUNA GOIZ DETEKTATZEAREN ALDE EGITEA ETA GIZARTEKO ERAGILE ETA HERRITAR GUZTIEN INPLIKAZIOA BILATZEA			
4.1.01	Estrategia bat diseinatzea eta martxan jartzea herritarrak sentsibilizatzeko haur eta nerabeen tratu onaz	Aldia	2020, 2021, 2022
		Aurrekontua	2020: 20.000 € 2021: 6.000 € 2022: 6.000 €
		Arduraduna	Hautzaro eta Senitarte Zerbitzua , Unitate Teknikoa
